

Antzasteta

2000.eko
martxoak 3
486. zenb.



Haratuzteak

Mozorroa aldatzeko egunak

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • EUREN IKUSPUNTUTIK: MALEN ERRASTI
AURREZ AURRE: EGIDAZU ETA MARGUSINO • KULTURA GAIA: MJ ETXEBERRIA



Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALET



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALET

expert 



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALET

FAGOR 

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

Kanpo zorra: aski da!!

Astebetean zehar, gutako asko ibili ginen zorbaki baten bueltan, zer izango eta zer adieraziko ezin asmatu. Zorioneko 84az ari naiz. Gaur badakigu zorbaki hori kanpo zorrik handiena duten herrialdeen kopurua dela. 84 herri burua altxatu ezinda, kanpoko interesek zanpatuta.

Kanpo zorra funtsezko elementua da garapen bidean dauden herrialdeen menpekotasun eta dependentsia ekonomiko iraunarazteko. Tresna hobezina herrialde horien aberastasunak lapurtzeko, beti ere, legeek eta nazioarteko erakunde politiko eta ekonomikoek "Nazioarteko Diru-Fondoaren eta Munduko Bankuaren eskutik" ondo babestuta gainera.

Nola sortu zen, baina? 70eko hamarkadan Iparraldeko banka pribatuak irabazi handiak izan zituen. Irabazi



Karmele Perez

horiek interes oso baxuko kreditu gisa herrialde txirotuertara bideratu ziren, garapenerako laguntza gisa. Praktikan, armak erosteko, herri haietako aberatsek luxuzko produktuak inportatzeko eta agintariak iparraldeko bankuetan zituzten kontuak hornitzeko izan ziren.

Ondorioz: zorra sozializatu da "estatua bihurtu da zordun eta zorra ordaindu ahal izateko gastu sozialak ia desagerrarazi, zeharkako zergak eta langabezia igo, soldatak murriztu, eta bizi baldintzak larritu dira", lehengaiak enpresarik onenak herri aberatsei saldu behar izan dizkiete.

Dena zapaldu-zapaltzaile paradigmati jarraipena emateko. Izan ere, garapen bidean dauden herrialde gehienak kiebra egoeran daude eta ondorioz kanpo zorra ordaintzeko maileguak eskatu behar izan dituzte. Horrela zorra

etengabe hazi da eta betiko eta ordainezin bihurtu. Eta hala ere, hirugarren munduko herriek laguntza moduan jasotzen dutena baino lau aldiz gehiago ordaintzen diete herri aberatsei zorrak eta interesak itzultzeko. Horren ordaintzat, emigrazioa, gerrak, pobrezia eta hondamendi ekologikoa geratu zaizkie. Galdera hau da: gure lana da botere ekonomikoek egiten eta erabakitzen duten horretan sartzea? Erantzuna erraza da: gure lana ere bada. Gure esku ere badago egokiak ez diren politikak, jarrerak eta jokaerak salatzea. Gure esku ere badago eragin txarreko inbertsioetan parte ez hartzea. Gure esku ere badago zuzenak iruditzen zaizkigun ekimenak proposatu eta boterea dutenengana helarazi eta haiengan eragiten saiatzea.

Oraingo honetan, zorra ordainduta dagoela esatea da gure lana. Guretzat bidezko ez dena besteentzat ere ez dela onartzea eta aldarrikatzea da gure lana. Ezin gara egon gauzak konponduko dituzten eta dizkiguten zain. Guk ahal duguntxo hori behintzat egin behar dugu, gutxi ezer ez baino hobe baita beti.

Oraingo honetan, zorra ordainduta dagoela esatea da gure lana

"Nekazaritza ekologikoa nekazaritza guztiaren oinarri da. Galdutako jakituriak errekuiperatzen ditu."

Maite Aristegi



ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarría. **Publikatzailea:** Nerea Zallo Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroiebe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Arantzazu Loidi. **Administrazioa:** Agurtzane Gaitzarain, Maite Umielaberría (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemakaldea:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Karmele Perez, Iker Ezpeleta. **Banaketa arduraduna:** Nalara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gerutu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Orkatz Skaut taldearen argazkia...



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

250

zuhaitz landatu dira
gaur goizean
Garagartzan.

Zuhaitz eguna dela eta, Arrasateko Lehen Hezkuntzako 6. mailako 250 haurrek eta 15 bat erretiratut landatu dituzte.

Pagoak, haritzak eta gaztainondoak landatuko dituzte, besteak beste.

ITURRI ONETIK

Urkulu zikin

Urkuluko bazterrak gero eta zikinago daudela eta, jende asko joan izan da Aretxabaletako Udalera kexua jartzerara. Berez, Gipuzkoako Ur Partzuergoari ei dagokio urtegia garbi zaintzea, baina hainbeste kexu zetozela ikusita, udalekoak joan ziren parajea ikuskatzera.

Ikusi zutena ez zen bat ere atsegina izan: animalia hilak, botilak, gaseosa ontziak eta era guztietako hondakinak.

Hori gutxi balitz, Urkulun pausatzen diren hegaztien berri ematen zuten hainbat ohol ere apurtuta agertu ziren.

Ikuskizun negargarria Leintz Bailaran aisirako dugun gunerik preziatuenetakoarentzat. Erabiltzaileok kontu gehiago izan beharko genuke gure inguruak zaintzeko orduan. Eta Gipuzkoako Ur Partzuergoak ere hobeto bete beharko luke bere eginbeharra.

ESPETXEETAN EUSKARA ITOTA

Hasi baino lehen, historia piska bat gogoratuko dugu. Joan zen mendean Larramendik idatzi zuen euskal liburu bat, gazteleraz zuen izenburua "El imposible vencido", euskal ironia euskaraz idatzi baitzuen. Etxepareren "Linguae vasconum primitiae" ere euskaraz idatzi zen 1545ean. Diot, horrela motzean esanda, teoria arriskutsu eta balizko bat, frogaezina. Aintzina Baskonia handian euskaraz x biztanle euskaldun bazeuden, hots, euskaraz aritzen zirenak, euskal tasunak zituztenak, gaur egun euskal herrian biztanle askoz gehiagorekin x-ek egiten dutela euskaraz eta euskara idatzia ere badela. Hots, euskal hitzak, euskaraz lehen eta orain hitzen hainbateko bera hitz egiten al da? (hau da, hau, idatzi beharra; teletonta piztuta dagoela, kaka espetxeak). Aintzina, Itxinako laberintotik igarota, aintzinerat berdin jarraituko du, euskaraz hamai-ka hitz lehen, orain ere hamai-ka. Euskaraz lehen eta orain berdin egiten dela. Baina giza legea mesedez, gure artean hurkoaren ahoa ez dugu itxi-ko guk, nik, euskaraz aritze-ko. Foruak kendu zizkigutenean, egunkari madrildar batek idatzi omen zuen "Kendu diz-

kiegu foruak, lapurtu diezaiogun orain hizkuntza". "San Simon eta San Judas" abestu nahi dut, baina askatasunean, mendixka batean, itota nauka, gaitu, hainbeste erdara eta erdararekin bizi beharrak, hemen espetxean. Babeleko hizkuntza sufritua "ote" da euskara? Aai! Izadi hondamena, teletonta. Amen, bukatzen dut idatzia, ituna; noiz egin ahal izango dut, dugu, euskaraz aske. Mirariak.

Jon Otero Uribarren

ABSTENTZIOARI BAI

Abstentzioari bai, demokrazia gabe bizi garela-ko eta hauteskunde haue-
tan ezker abertzaleko kideoi, propagandarako espazio propioak ukatzen dizkigutelako. Abstentzioari bai, botoa emateak soilik ez duelako demokrazia bermatzen, eta euskaldunok sufritzen dugun egoera inondik inora demokratikoa ez delako. Abstentzioari bai, milurte berriaren hasieran eta Lizarra-Garaziko filosofiarekin koherentea izanik, Euskal Herria sujeto historiko izateko ordua heldu zaigulako. Abstentzioari bai, Espainiako estatutik bortxaketa, demokrazia eza, errekonozimendu eza, duintasun eza eta zapalkuntza soilik ematen digutelako. Abstentzioari bai, Espainiako inposaketa biolentoaren aurka, askatasunean eta demokrazian oinarritutako bakea ezarri behar dugulako. Abstentziari bai, borrokatu gabe-

ko gatazkak benetan galduak izaten direlako. Abstentzioari bai, norabide burujabe berria behar dugulako. Abstentzioari bai, Euskal Herritar garenok euskal demokrazia propioa, gure Demokrazia, premia handiz eraiki behar dugulako.

Antxon Mendizabal eta Sagra Lopez

Orain dela egun gutxi, aldizkari honen bidez plazaraturik agerturiko gutun hartako adierazpenen erantzunkizun oso-oso gure gain hartzen dugu. Hau da, Arrasateko zahar egoitzaren gainean eginiko adierazpen hain ez ohizkoak, hain zuzen ere.

Beraz, geure buruen jabe egiten gara guztiz, sortu ahal izan dugun kaltea onartzekoan, batez ere gure erantzukizun faltagatik kalteturik gertatu diren edo minduta sentitu diren guzti-guztiei. Arren, onar dezatela, bihotz-bihotzez, gure barkamen eskaera.

Barrutiabengoa anaiak

Besteren bizkarretik

Nik ez dut martir bokaziorik, ez naiz Kalkutako Teresa edo Gandhi bezalako pertsona sendo eta eskuzabala, ez dut nire burua besteengatik dena emateko gauza ikusten.

Baina barren barrene-
tik diot ez dudala beste inoren bizkarretik bizi nahi, ez dudala nire bizia beste gizakien esplotazioan euskarritu nahi, ez dudala inoren ahultasunetik probetxurik atera nahi; bestee-
kiko harremanak justizian oinarritu nahi ditudala, munduko aberastasunetik ez dudala niri justiziaz dagokidan zatia baino gehiago hartu nahi eta justiziaz niri ez dagokidala beste inori baino gehiago.

Horregatik nago kanpo zorra ezabatzearen alde. Kanpo zorra bidegabekoa delako, esplotazio tresna bat delako, iparraldeko gutxi batzuen probetxurako hegoaldeko mila milioi gizabanako menperatzen dituelako eta sufrimendua eragiten dielako.

Aberatsak aberasteko txiroak goseak akabatzen dituelako, bidegabekoa eta ankerra delako EZABA DEZAGUN KANPO ZORRA.

Beñat Arzadun
Kanpo Zorra
Ezabatzeko Bilkura

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 3
 - Korkuera, Musakola
- Larunbata, 4
 - Irizar, Erguin
- Igandea, 5
 - Amezua, Santa Marina
- Astelehena, 6
 - Zabala, Zarugalde
- Astearte, 7
 - Ruiz, Maalako Errabala
- Asteazkena, 8
 - Morales, San Andres
- Osteguna, 9
 - Irizar, Erguin

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Zeinek du zuenean etxeko lanen ardura?

Martxoaren 8an izango da Emakumearen Nazioarteko Eguna.



Juli Bolinaga
(72 urte)
Etxekoandrea

Zeinek izango du, bada? Emakumeok!



Fernando Aspe
(71 urte)
Erretiratua

Nire etxean nire andreak egiten ditu etxeko lan denak.



Renato "Malabarista"
(30 urte)
Langilea

Lau gara, txakurra barne, eta ardurak banatu egiten ditugu. Batek aurpegiak margotu, besteak kudeatzaile lanak, txakurrak babestu egiten gaitu...



Sabino Etxebarriarteun
(59 urte)
Langilea

Ama oso nagusia dut eta emakume bat laguntzera etortzen da, baina gehiena neuk egiten dut.



Esther Vieira
(56 urte)
Etxekoandrea

Emakumeok dugu lanen ardura. Gizonek mahaia jarri eta jan, besterik ez dute egiten!




Puri Larringan
(50 urte)
Langilea

Beste batek eta nik. Hura ere emakumea da.



Ainara Zubillaga
(17 urte)
Ikaslea

Amak eta biok eramaten dugu ardura. Etxeko gizonek ez behintzat!



Gorka Aretxaga
(33 urte)
Langilea

Geurean erdibana, emazteak eta biok.

Sagardotegia Txotx egin!

ITURRIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 55 85
ARAMAIO

Comercial
ARPE

Haratuzteetan aldatu zure orrazkera

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

3

ostirala

■ ZINEA

Juana de Arco, 19:00 eta 22:00, Alai zineman.

■ HARATUZTEETAKO KONTZERTUA

Haratuzteak direla eta, kontzertu berezia eskainiko du Arrasate Musikal Eskolak. Euren egoitzako areto nagusian, 18:30.

4

larunbata

■ ZINEA

Los Teleñecos en el Espacio, 17:00, eta *Segunda Piel*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ UMEENTZAT MASAJE IKASTAROA

Urtebeterainoko umeen gurasoek haurrentzat masaje ikastaroan parte hartzeko aukera dute, Mugi psikomotrizitate prebentzio eta laguntza zentroaren eskutik. Gaur izango da aurkezpen bilera, Mugiren egoitzan, Araba etorbidea 3n, 11:30.

■ TORRADA LEHIAKETA

Etxean egindako torrada lehiaketa antolatu du Zahar-Berrik. 6 torrada eraman behar du. Nafarroako baserri turismoa etxe batean asteburu bat pasatzeko aukera izango du irabazleak. Udaletxeko arkupean, 18:00.

■ BERGARAKO HARATUZTEAK

Bergarako Udalak Haratuzte jaietarako hainbat ekintza prestatu du. Gaur, haur jolasekin hasiko da jaiak, 17:00etan. Ondoren, *Txatunga Benbe* eta *Xamatx* taldeek kalejira eta dantzaldia eskainiko dituzte. 21:30etan suzko zezena izango da San Martin plazan, eta 23:00etan *Irailerako 6* taldearen eskutik dantzaldia, toki berean.

5

igandea

■ ZINEA

Los Teleñecos en el Espacio, 17:00, eta *Segunda Piel*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ BERGARAKO HARATUZTEAK

Bergarako haratuzte jaiak hiru ekitaldi eskaintzen dute gaurkoan. 12:30etan, pilotalekuan, Udal Musika Banda eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua. 18:00etan, *Takolo*, *Pirritx* eta *Porrotx* pailazoan ikuskizuna, eta 18:30etan *Basque Country* taldearekin dantzaldia, San Martin plazan.

■ ANTZERKIA

Alalá Produzioak taldeak *A Viaxe de Lola* lana taularatu du. Sarrerak 1.000 pezetan, 800 Gazte Txartelarekin. Amaia Antzokian, 19:30.

6

astelehena

■ ZINEA

Segunda Piel, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ ZINE FORUMA ESKORIATZAN

Eskoriatzako Amuska emakume taldeak emakume-ari buruzko zine foruma eta Ana Larrietaren hitzaldia antolatu ditu, Eskoriatzako Kultur Etxean, 18:30.

7

asteartea

■ ZINEA

Segunda Piel, 19:00 eta 21:30, Alai zineman. Ikuslearen eguna, 400 pezeta.

■ KALEJIRA BERGARAN

Musika Eskolako txarangarekin kalejira izango da Bergarako kaleetatik 16:00etatik aurrera. 17:00etan, buruhandi eta erraldoien kalejira, Udal Txistulari Banda, *Kobo* dultzaineroak eta *Kukuma* hankaluzte taldearekin.

Haratuzteak 2000 Aretxabaletan

Bete-bete eginda dago Aretxabaletako Udalak haratuzte jaietarako prestatu duen egitaraua. 5a eta 7a dira egun handiak.

MARTXOAREN 5a, DOMEKA

10:00 Txistulariekin diana.

12:00 *Akelarre* txarangaren etorrera eta desfilea.

13:00 *Txino Dantza*, Santa Ageda neska-mutilekin.

18:00 Euskal Presoak Euskal Herrira kalejira.

19:00 Herriko plazan, Santa Ageda mutilen ohiko dantza. Jarraian, aurtengo mozorro lehiaketaren sari banaketa.

Afalostean: *Akelarre* txaranga.

MARTXOAREN 7a, MARTITZENA

10:30 Pausokako hauren mozorro kalejira.

11:00 Herriko plazan, Kurtzebarri aurre eskolaren txino dantza.

15:00 *Incansables* txarangaren etorrera.

17:30 Buruhandiak.

18:30 Herriko kaleetatik, *Txusma* antzerki taldearen *Vonjnirek Familixe* lana.

20:30 Taberna Berri jatetxean, herri afaria, lutoz jantzita.

22:30 Mitarte kaletik hasita, txinoaren hileta. Lutoz jantzea eta kandelak eramatea eskatzen da.

8

asteazkena

■ EMAKUMEAREN EGUNA

Emakumearen Nazioarteko eguna ospatzeko hamaitzako ekintza antolatu du Emakume Batzordeak.

- 09:00 azoka animazioa, Azoka Plazan.
- 16:00 Ipuin kontakizuna Santa Teresan.
- 16:30 Umeentzako tailerrak Herriko Plazan.
- 17:30 Erakusketa zabal-tzea Harresin.
- 18:00 Ipuin kontaketa AEDn,.
- 19:30 Manifestazioa Seber Altuben.

■ BERGARAREN HISTORIA

Juan Madariaga irakasleak "Economía, sociedad y cultura en Bergara durante el Antiguo Régimen" hitzaldia eskainiko du, San Joxepe jubilatutako eta pentsionisten elkar-tearen eta Bergarako UNEDen eskutik. Miguel Altuna Institutuan, 19:30.

9

osteguna

■ HITZALDIA ARETXABALETAN

Bioeraikuntzari buruzko hitzaldia antolatu du Aretxabaleako Gaztetxeak. Xabi Tramon izango da emalea. 19:30.

■ IPUIN KONTAKETA

Ipuin kontaketa saioak antolatu ditu Emakume Sailak. 10:00etan Institutuan eta 14:30etan Erguinen.

■ ZINEA AMAIAN

Udalaren Kultura egitarauak Lisa Cholodenko zuzendariaren *High Art* filma eskaintzen digu gaur. Sarrerak 450 pezeta, 400 Gazte Txartelarekin. Amaia Antzokian, 21:30.

■ ZUHAITZ EGUNA

Garagartzan zuhaitz landaketa antolatu du Udaleko Ingurugiro Sailak. Herriko Lehen Hezkuntzako 6. mailakoei eta erretiratuei dago zuzenduta ekintza hau. Parte hartzaile bakoitzak opari bana jasoko du. Urbe auzoan elkartzeko da taldea, hilaren 3an, ostiralez, 10:00etan.

■ ZIENTZIA ETA TEKNIKA ERAKUSKETA

Monterronen erakusketak berria aurkeztuko da hilaren 3an, ostiralez. Zientzia eta Teknikaren Kutxa Gunea du izenburua, Gipuzkoako Kutxak antolatuta. Hilaren 14ra arte egongo da ikusgai.

■ BI KINTO BILERA

Bi kinto jai ospatuko dira hilaren 4an, larunbatez. 1946.an jaiotakoek San Frantziskon meza izango dute 12:30etan; bazkaria Hotel Mondragonen, 14:30etan. 51.eko kintoak, 1930.an jaiotakoek ere meza eta bazkaria izango dute Musakolako Hostalean.

■ EMAKUMEEN ERAKUSKETA

Martxoaren 8an, herriko emakume artista eta artisauen lanen erakusketa zabalduko da. Famili eta Gizarte Heziketa Zentroko emakumeek, Beni Urkiagaren tailerrak, M. Jose tailerrak, Ekin Emakumeak taldeak, Monterrongo margo taldeak eta Musakolako eskulan taldeak hartzen dute parte. Harresi aretoan, 17:30.

Egun berean herri bazkaria antolatu du Udaleko Emakumeen Kontseiluak. Martxoaren 11n izango da, 14:30etan, Musakolako Hostalean.

Txartelak, 2.000 pta: Udaleko Emakume sailean, Ekin Emakumeak taldearenean eta Jaizale eta Biona tabernetan. Martxoaren 6a bitartean.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek Andartora mendirteera antolatu du martxoaren 11rako. Izen ematea martxoaren 9an, Besaideren egoitzan, 19:30-20:30.

■ SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Urtero bezala, Hernaniko sagardotegi batera irteera antolatu du Erdu-AEKK. Martxoaren 11n, larunbatez, izango da. Txartelak 4.500 pezeta dira salgai Iratin edo AEKn.

■ INTSUMISO AFARIA

Martxoaren 11rako sagardotegiko afaria antolatu du Intsumisoen Batzarrak. Iñigo Irasuegi, tel. 943 79 90 59.

■ IRRATI IKASTAROA, ATZERATUTA

Gazte zerbitzuak antolatutako irrati ikastaroa atzeratu egin da, Arrasate Irratiaren eraberritze lanengatik.

■ MOTORREN LIZENTZIAK

Motorren matrikulaziorako beharrezkoak diren zirkulazio baimenak dagoeneko udaletxean daude. Horiek jaso behar dira aurrenik, ondoren motorren matrikulak egin ahal izateko. Interesatuok Udaltzaingotik pasatu 7:00-21:00.

■ NORTASUN AGIRIAK

Pasa den urtarrilean egindako Nortasun Agiriak jasotzeko prest daude udaltzaingoa.

USTEAK USTE

Bada garaia

Berrero ere, Emakumearen Nazioarteko Eguna izango da datorren asteazkenean. Eta beste hainbat urtetan bezala, kale agerraldi ugari egingo da leku askotan, baita Arrasaten ere. Emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna aldarrikatzeko egingo da kasu guztietan. Eta horren beharra dagoela somatzen badugu, berdintasuna benetako ez den seinale. Bai noski, egoera ez da gure amandreek ezagutu zuten garaia-takoa. Baina hainbat arlotan oraindik ere bide luzeena egin barik dagoela esango nuke. Bai, gero eta emakume gehiagok egiten du lan etxetik kanpo (etxeko lanak ahaztu barik). Eta erabakiak hartzeko ardura dutenak ere gehiago dira. Baina oraindik ere badirudi emakumeok zer egiteko gai garen erakutsi beharra daukagula.

Gurean, ARKOn, 22 langiletatik, 15 emakumeak gara. Ez da berdintasun egoera, baina ARKOn ia beti izan da horrela. Hala ere, zenbat enpresatan gertatzen da hori? Oraindik ere bidea egin beharrean gaudela uste dut eta horretan saiatuko gara.

Marijo Deogracias



XXI. mendean sartzen

* Malen Errasti

Badator beste martxoaren 8 bat, emakumeen eskubideen defentsarako erduzko borroka femenino baten urteurren eta oroitzapen gisa; beren aldarrikapenen defentsarako lantegian itxi ziren emakumeak, ugazabak lantegiari su eman eta denak hil ziren... kiskalita.

Ezberdintasunaren aurkako emakumeen borroka luzeak gizarteko hainbat arlotan eragin baikorra izan du. Gure lanaren bidez emakumeok XX. mendeko aldaketa sozial handienetarikoa eraman dugu aurrera.

Benetan esanguratsuak dira azken urteotan lortutako aurrerapenak: gizonen eskubideekiko berdintasuna eta gizarteko hainbat arlotan emakumeen presentzia handitzea, lan ordaindutik hasita.

Baina, lorpen horiek ez dute behar beste aldatu emakumeek gizonetikiko duten posizio subordinatua.

Ordaindutako lanaren esparrua adibide ona da

gizon eta emakumeen artean dauden ezberdintasunak islatzeko. Konstituzioan aldarrikatutako berdintasunaren aurrean, errealitate bidegabea eta ezberdina dago. Salatuta ere ia aldatzen ez den errealitatea.

Errealitatea, ez dezagun ahaztu, ondorengo da:

- Emakumeen langabezi tasa gizonezkoenaren bikoitza da.

- Emakumeok batez ere pertsonak zaintzearekin lotura duten lanbideetan eta etxeko egonaldia luzatzen duten lanbideetan dihardugu behar-rean. Aldi berean, ustez gizonezkoentzat diren lanbideak

debekatuta ditugu.

- Gizonezkoen eta emakumezkoen soldata ezberdina. Gizonezkoen soldatak %25-30 altuagoak dira emakumezkoenak baino.

- Beste aspektu batek ordaindutako lanera sartzen gareneko kontratu motarekin du zerikusia. Emakumei egindako kontratuen %90 aldi baterakoak eta zatikako ordutegikoak dira.


- Emakumeok hartzen dugu geuregain etxeko lanen pisu gehiena eta baita gaixotza dauden edo bere kabuz moldatzeko gai ez diren pertsonen zainketa ere.

Eta horren aurrean, bazterketak eta pobrezia emakumei eragiten die gehien bat: pertsona txiroen hirutik bi emakumeak dira.

Ez zaigu batere gustatzen errealitate hau. Ekinean jarraitu nahi dugu, eta garen bezala agertu. Gizonezkoen gaitasun beretsuekin eta eskubide eta aukera berdinekin.

Horregatik martxoaren 8 honetan berriz aldarrikatuko ditugu gure eskubideak. Berriz salatuko dugu berdintasunerako diskurtsoen atzean injustizia eta ezberdintasun egoerak ezkutatzen direla, errealitatea aldatzeko exijituz sexuari dagozkion ezberdintasunak gainditzeko, eta gizon eta emakumezkoentzat gizarte bidezkoagoa lortzeko.

* ESK




Pando
ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxa: 943 79 79 70

ML
ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA

ARETXABALETAKO**1 Txakur-gorotzak kentzeko plana**

Txakur-gorotzak direla eta, herriko hainbat gunetan izugarrizko zikinkeria dago, eta arazo hau saihesteko plan-gintza berria jarri du abian Aretxabaletako Udalak. Horrela jakinarazi zaie bizilagunei etxebizitzetako atarietan jarri diren abisuetan. Txakurren jabeek txakur-kakak jasotzeko poltsak izango dituzte eskuragai Udaletxean. Poltsatxo horiek herriko zabor ontzietara bota beharko dira erabili ondoren. Txakurren jabe guztiek erabili beharko dituzte poltsa bereziok eta egin beharrekoa gogorarazteko, seinaleak ezarriko ditu Udalak zikinkeria gehien pilatzen den lekuetan, Lausittako lorategi inguruan, Markolen edo trenbide zaharrean, esaterako.

**BERGARA****2 2.851 milioiko aurrekontua**

Aste honetan onartu ditu Bergarako udalak 2000. erako aurrekontuak. 2.851 milioi izango ditu bere beharrak asetzeko. Iaz baino %9 handiagoa da kopuru hori, Gipuz-

koako herri gehienetan gertatu den bezala. Eusko Alderdi Jeltzalea, Eusko Alkartasuna eta Euskal Herriarrok alderdien adostasunarekin onartu ziren aurrekontuok. Inbertsioetarako 802 milioi izango dira, eta zatirik handiena Bergarako Industrialdera joango

da. Gastuei dagokienez, gehien hazi den partida Mizpirualde Zaharren Egoitzarena izan da, ia %40ko igoera izan baitu, mojen ordezkotza zerbitzua kontratatatzeko. Udal Euskaltegiaren atala ere ia %25 hazi da. Ondoren, hirigintza eta informatika datoz. Euskara, hez-

kuntza, gizarte zerbitzuak, auzoak eta ingurumena ere igo egin dira; jaitsi direnen artean, berriz, zerbitzu orokorrak, pertsonal saila, kultura eta kirola daude.

OÑATI**3 Garaia proiektuari bai**

MCC eta Mondragon Unibertsitatearen Garaia proiektuarenganako konpromisoa hartu du Oñatiko Udalak, asteleheneko osoko bilkuran erabaki zenez. Garaia proiektuaren helburua 1.250 lanpostu berri inguru sortuko dituzten 20 bat ikerketa zentro eratzea da. Ikerketa zentro horiek Arrasateko Osiñurdin gunean kokatuko badira ere, bailara osoarengan izango du eragina egitasmo honek, Debagoienaren garapeneren oinarri bihurtu nahi duelako Garaiak. Beraz, Arrasatez gain beste herriei ere egingo dio mesede egitasmo honek: Oñatin, adibidez, Mondragon Unibertsitatearen fakultate bat dago, eta hau ere hazi eta moldatu egingo da, lan eskakizun berriei erantzuna emateko. Mondragon Unibertsitateak 200 irakasle gehiago kontratatuko ditu, eta 2.000 ikasle gehiago hartuko ditu.



**Zure hildakoen eskela,
eskerrona edo urteurrena
jarri nahi baduzu,
oraintxe duzu aukera
Arrasate Pressen eta ATBn.**

Argibideak ☎ 943 71 23 91

astea bi hitzetan

■ Emaizta onak Udalpen

Udalpe elkarteak urteroko batzar orokorra izan zuen pasa den ostegunean. 1999. urteko memoria egin ondoren, emaitza onak nagusitu ziren, beraz, aurten bazkideek ez dute kuota igoerarik izango. Bestalde, berriro aukeratu dute 16 urte elkarteo presidentea izan dena, Jose Rodriguez. Era berean, Mikel Lazpiurrek diruzain lanak betetzen segituko du. Udalpe elkarteak Ohorezko Bazkide izendatu zituen Jose Rodriguez eta Mikel Lazpiur, urte hauetan egindako lanagatik.

■ Batera

Hamabostero moduan, joan den ostiralean Batera plataforma berriro bildu zen Herriko Plazan presoek eskubideak aldarrikatzeko. EAJK, EAK eta EHk deitutako bil-

kura honetan hainbat lagun elkartu ziren "Euskal presoak Euskal Herrira" lelopean.

■ Import Arrasate saritua

Sei hilabetetik lau urtera bitarteko haurrentzat zuntz polarrez egindako buzo bat diseinatzeagatik, Apex 2000 izeneko saria irabazi du Import Arrasate enpresak. Marco du izena buzoak eta Polartec etxearen eskutik jaso du saria. Municheko ISPO azokan egin zen sari banaketa, Europako kirol azokarik garrantzitsuenen. Hantxe izan ziren Europako eta Ekialde Urruneko ekoizleak. Kirolari, diseinatzaile, kontsultore eta kirol aldizkarietako editoreek osatu zuten epaimahaia eta jantziaren funtzionaltasuna, estiloa, moda, erabilera, erosotasuna eta diseinuaren berrietasuna nabarmendu zituen.

■ Istripu latzak

Gidarientzat asteburu latza izan da pasa berri den hau. Astelehen goizaldean, 3:00ak aldera istripua izan zen Oñatiko Garibai auzoan. Sorailuzeko 40 urteko Venancio Rodriguez izeneko gizonzkoa bertan hil zen. Ertzaintzak goizeko 8:00etan aurkitu zuen Bilboko matrikuladun Ford Escort zuria eta istripu horren lekukoak testigantza ematen bila dabil. Inork ezbeharra ikusi badu, 943 44 91 19 telefonora deitu.

Bestalde, igande goizean Eskoriatzako 21 urteko Oier Carballares gaztea hil egin zen beste istripu baten ondorioz. Elgoibarren izan zen istripua, bere Ford Escort autoak eta Nissan Patrolak elkar jota. Hildako gazteaz gain, beste bi zauritu ere izan ziren. Oraindik ez dakite zerk eragin zuen ezbeharra.

■ Ekoizpen zuzendaritza

Eskola Politeknikoak antolatutako IX. Ekoizpen Zuzendaritza izeneko masterra pasa den ostiralean amaitu zen. Amaiera ekitaldian Jabier Retegi, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko zuzendari orokorra, Iñaki Dorronsoro MCCko kalitate eta teknologia saileko kidea eta Juan Inazio Igartua, IRAUNKOR-eko zuzendaria izan ziren.

Industria enpresetan ardura handiko lanpostuetan diharduten pertsonen zuzendutako masterra izan da. Autonomi Erkidego osoko enpresek hartu dute parte.



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

“ Etxeko alpinismoa ez da sekula puntakoa izan, ez orain ez eta duela hogeitau urte. Asko ibili bai, baina bigarren maila batean. Zortzi milakoen mailan hainbeste entzuten denez, jendeak orokorrean uste du nazioartean goi mailakoa eta garrantzitsua dela eta ez da egia. Tourrean irten eta tropelean joan, baina mendateetan igotzeko gai ez izatea bezala da. Etxeko alpinismoa tropelean joateko modukoa da. Ezin da esloveniarraren, jugoslaviarraren edota errusiarraren maila teknikoa gurearekin alderatu.

Martin Zabaletak Everest igo zuenean, Messnerrek bi urte lehenago oxigenorik gabe igo zuen. Jugoslaviarrak 1980an Lhotseko hegoaldekoa egiten ari ziren, poloniarrek Everest eta Lhotse neguan igo zituzten... nola pentsatuko dugu haien pare gaudenik!

**FELIX ETA ALBERTO
IÑURRATEGI**

Gara
(2000.2.27)

Azken atentatua, porrot kolektiboa

Fernando Buesa sozialista eta Jorge Diez ertzainaren aurka atentatua dela eta, bi mozio berezi aurkeztu ziren udalbatzarrean pasa den osteguneko ohiko osoko bilkuran.

Bata Eudel elkarteak aurkeztutakoa izan zen. Hiru puntu bozkatu ziren: atentatua gaitzestea, hildakoen senideei dolumina adieraztea eta euskal udalek eta herritarrek atentatuaren aurkako jarrera erakustea. Bigarren puntuan izan ezik, beste bietan EH abstentitu egin zen, beraz, mozioa ez zen onartu.

Beste mozioak, EHK aurkeztutakoak, bost puntu zituen eta honakoa eskatu zen: "Bi hilketak porrot kolektiboaren barnean kokatzea, gizarteak pairatzen duen tristezia eta hunkipen sentimenduekin bat egitea, hildakoen senitarteko-



PSE-EEkoek, Fernando Buesaren oroimenean argazki bat ipini zuten.

ei eta lagunei dolumina adieraztea, guztion ardurara politikoa berrestea elkarriketa eta ulermena garatuz eta aipatutako helburu honekin lan egitea Euskal Herrirako bakea eta demokrazia lortzeko".

Bigarren mozio hau bozkatzeko orduan, atentatuaren aurkako gaitzespena ez zenez adierazten, PPko zinegotziek botorik ez ematea erabaki

zuten. Bestalde, EAJ eta EA abstentitu egin ziren puntu guztietan. PSEk lehenengo, laugarren eta bosgarren puntuen aurka bozkatu zuen baina bigarrena eta hirugarrena onartu zituen eta Ezker Batuak, berriz, lehenengo hiru puntuetan abstentitu bazen ere, azkenengo bietan aldeko botoa eman zuen. Beraz, bigarren mozioa onartu zen.

Espetxeetarako dirulaguntzak

Preso dauden arrasatearren senideentzat dirulaguntzak eskatzeko epea ireki du udalak. Iazko irizpideak erabiliko dira eskaerak aztertzeko.

Dirulaguntzetan, presoak bisitatzerakoan joan-etorrian izaten diren gastuak sartzen dira. Preso bakoitzeko senitarteko bakarrak jaso dezake laguntza, eta senitartekoei eta presoek Mondragoen egon behar dute erroldatuta, hiru urtez gutxienez. Eskaerak martxoaren 31 baino lehen egin behar dira, udaletxeko gizarte zerbitzuan. Dirulaguntza lortuz gero, espetxe bakoitzetarako kilometro kopurua bider hamar egin eta horixe izango da familia bakoitzak jasoko duena. Asko jota hilean behin emango da laguntza.

SEAT



UDALAITZ, S.L.

Musakola, z/g • Tel.: 943 79 18 80
ARRASATE



**Etorkizuna
diseinatzen**



Haratuzteetako girorik ederrena



IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00

ESKIÑA taberna

Zorionak eta ondo ibili Inauterietan!
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

Aupa
Inauteriak!!

OKORETEGI

KAFETEGIA

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!



Hauteskunde kanpaina



EZKERRALDEA MONTERRONEN

35 lanorduko astea, politika soziala eta bakea eskainiz etorri zen Ezker Batua Mondragoera. Isabel Lopez Aulestia, Kongresurako hautagaia, Ricardo Ortega Senaturako hautagaia eta Javier Madrazo, alderdiko koordinatzaile orokorra Monterronen izan ziren astelehenean martxoaren 12rako boto eske. "Beharrezkoak gara" leloa erabili dute horretarako.

EUZKO ALDERDI JELTZALEA

Datorren asteazkenean, Amaia Antzokian, EAJ alderdiaren mitina izango da arratsaldeko 20:00etan. Hizlariak Xabier Arzalluz, Joseba Egibar eta Joxe Joan Gonzalez de Txabari izango dira.

Kutxak errekurritu egingo du

Kutxa Fundazioak errekurtsioa aurkeztuko dio Familia eta Gizarte Heziketako Zentroko begiraleen alde epaileak hartutako erabakiari. Halaxe jakinarazi digu Juan Luis Urkolak, Kutxa Fundaziozko komunikabide arduradunak. Familia eta Gizarte Heziketako Zentroko (FGHZ) begirale batek adierazi digunez, bestalde, errekurtsioa aurkezteaz gain, Kutxa Fundazioak bi aukera zituen, kaleratutako begiraleak indemnitzatzea edo berriro lanean hartzea. Hartutako azken erabakiaren arabera, langileak ez dituzte beronartuko, beraz, kalean


segituko dute.

Honetaz gain, pasa den udalbatzarrean FGHZko begiraleek aurkeztutako mozio bat ere bozkatu zen. Aretoa jendez gainezka zegoela landu zuten gaia politikariek. Zenbait puntualizazioen ondoren, EAJren abstentzioarekin eta beste guztien aldeko botoekin onartu zen mozioa. Honakoa onartu da: Fundazioaren jarrerari uko egitea, kurtsioak hasteko eskatzea baita bere gizarte funtzioa martxan jartzea eskatzea eta Zentroen jarraipenari buruz eta langile kontratazioei buruzko azalpenak eskatzea.

Euskaraz oso gutxi

AEDk publizitatean erabiltzen den euskara maila neurtu du beste urte batez. Arrasateko 231 iragarki erabili ditu azterketarako eta ikusten denez,

euskarak presentzia benetan urria du publizitate arloan. Hala ere, oso zati txikia bada ere, orain arte baino apurtxo bat gehiago erabili da 1999.ean.



MCC bateratze bidean

Mondragón Corporación Cooperativa bairarako ingeniari-tza eta aholkularitza taldeko zentroak leku bakarrean bildu nahi ditu. LKS, LKS-Consultores, Diara, LKS Ingeniaritza, Ondoan eta Mondragon Sistemas Informáticos enpresek osatzen dute aipatutako taldea. Guztira 500 bat langile ari dira jardunean, hauetatik 260 Aretxabaletan eta Arrasaten. Aipatutako bi leku hauetako langileak dira, hain zuzen, MCCk toki bakarrean batu nahi dituenak.

ZERRAJERA EDO OLANDIXO

Toki hori non egongo den oraindik zehaztu barik dagoen arren, ziurra da Mondragoen kokatuko dela. Arrasateko Udalean aurkeztutako proiektuan, bi leku posible agertzen dira: Zerrajerako industrialdea eta Olandixo.

Jose Ramon Goikoetxeak, MCCren Ingeniaritza eta Kontu Ikuskaritza taldeko presidentek azaldu duenaren arabera, hasieran 4.000 metro karratu beharko liriteke zentralizazioa gauzatzeko; hala

ere, litekeena da lau urte barru leku gehiago behar izatea. Izan ere, orain 260 langile badaude, lau urte barru 330 izatea espero da.

500-600 milioi pezetako inbertsioa aurrekusi da proiektu honetarako. Taldeko arduradunek bi urte barru gauzatura egotea espero dute.

LIBURUA KALEAN

LKS enpresaz ari garenez, kalean da dagoeneko "Al Encuentro de la Excelencia" izeneko liburua. LKS enpresak plaza-ratutakoa, enpresen zuzendaritzan lagungarri izatea du helburu. Bost puntu nagusi landu dira liburuan: helburuak zehaztea, prozesuen gestioa, enpresa batek lortutako bezeroei nola eutsi, informazio teknologien kudeaketa eta enpresaren ezagutzatik etekinik onena nola lortu.

Hiru urteko talde lanaren emaitza da liburua, Mondragon Unibertsitatea, LKS eta Mondragon Sistemas enpresen artean egindakoa. 1.000 ale kaleratu dira, guztira. Berezi-ki, LKSren bezeroei zuzenduta dago.

Pilar Mondragon aske



Pilar Mondragon preso ohi arrasatearra etxean da joan den ostiraletik. Bost urte eman ditu Frantziako Fleury-ko espetxean, tartean 46 eguneko gose greba egin zuen.

Pasa den ekainean Espainiako Soto del Real kartzelara eraman zuten eta hantxe egon da orain arte. Pilarrek 1974.eko azaroaren 17an ihes egin zuen.

Zerbitzu berriak San Juan de Dios ospitalean

San Juan de Dios ospitaleak bi zentru berri irekiko ditu: Aldi Baterako Zentroa eta Egune-ko Ospitale Psikogeriatrikoa. Bihar izango da inaugurazio ekitaldia. 11:00etan Eukaristia, 12:15etan, zentru berriak bedeinkatuko dira eta bukatzeko, 12:45ean luntxa eskainiko zaie han bildutakoiei.

ALDI BATERAKOAK

17 pertsonarentzako lekua du zentro berriak. Arazo psikikoak dituzten 65 urtetik gorako pertsonei dago zuzenduta. Pertsona hauek dituzte gaixotasun psikikoak epe jakin batean zehar zaindu ondoren, familiara itzultzea edo beharrezkoa izanez gero, euren egoerarentzat egokiagoak diren zerbitzuak eskaintzea du helburu.

Horretarako, euren etxeetan bizi diren gaixo psikogeriatrikoen familien zama arintzeko balio duen programa bat erabiliko dute batetik. Bestetik, tratamendua behar eta beste toki batzuetan lekurik aurkitzen ez duten gaixoentzat

beste programa bat eskainiko dute.

EGUNEKO OSPITALEA

Izenak dioen bezala, egunean zehar zainketa berezia behar duten gaixoei zuzenduta dago bigarren zentroa. Astelehentik larunbatera bitartean ieikiko ditu ateak, 15 pertsonarentzako lekuarekin.

Arazo psikikoak dituzten 65 urtetik gorako pertsonak egunean zehar zaintzea da helburua, familiarekin ahalik eta denbora gehien bizi ahal izateko.

Pertsonaren autonomia eta elkarbizitza landuko dira, besteak beste, bizi kalitatea eta autoestima bultzatu eta hobetzeko asmoz. Eguneko ospital honek, jantoki zerbitzua, zainketa orokorrak eta larrieldietarako garraio eta beharrezko zerbitzuak izango ditu.

Eguneko ospitala ez da psikiatria ospitalaren zati izango, hori dela eta eskaintzen dituen zerbitzuak, zaintza zerbitzuak dira eta ez sendatzeak.

Jarraipen arkeologikoa

Olarte kalean egiten ari diren lanek jarraipen berezia izango dute. Aztarna arkeologikoak ager daitezkeen susmoa dago, ondorioz, Donostiako Arkeolan enpresak lanak zainduko dituela jakinarazi da aste honetako Gobernu Batzordean.

Arkeolanetik adierazi digutenaren arabera, Mondragoeko harresi zaharra agertzeko aukera handia dago Olarte kalean. Horrez gain, antzinako Mondragoen, burdinolak

zeuden Olarte kalean, beraz, posible da olaren baten aztarnak aurkitzea ere.

Hori guztia zaintzeko, Olarte kalean lubaki edo zulo bat egiten den bakoitzean Arkeolan enpresako langileren bat zaintzen izango da.

Aztarnaren bat agertuz gero, aztertu eta Foru Aldundiak erabakiko du zer egin.

Arkeologoak aste honetan hasteko dira lanean. Ia 2 milioi pezetako aurrekontua dute lana betetzeko.

Luzuriaga greban

Otsailean bezala, martxoan ere Fagor Luzuriaga enpresakoek greba egingo dute astelehenero eta ostiralero. Adierazi dutenez, zuzendariak ez diete kasurik egin eta presionatzen segitzea erabaki dute.

Enpresak 130 langile kaleatzea nahi duela eta hasi ziren arazoak.

Etxea behera

Zarugalde kaleko 15. zenbakiko etxea botatzea erabaki du udalak. Etxearen egoera tamalgari eta arrisksuaren aurrean erabaki bat hartzea eskatu zioten Zarugalde kaleko 17. zenbakiko bizilagunek eta egoera aztertu ondoren, hondamena adierazteko espedientea ireki zuen otsailaren 25ean.

Globalizazioa aztergai



AEDk eraruta, globalizazioa hizpide izan da Monterronen aste honetan. Antxon Mendizabal eta Jon Sarasua hizlariak globalizazioak Euskal

Herrian duen eragina azaldu zuten. Besteak beste, Arrasateko kooperatibismoa aztertu zuten globalizazioaren ondorio moduan.

Gazteak ekintzaile izatea helburu

Uribarri auzoan barneratzeko asmotan, hango Gazte Txokora jo dugu aste honetan. Erretiratuen lehengo egoitzan kokatuta, duela urtebete pasatxo ireki zizkien ateak auzoko gazteei.

Urtean urteko gorabeherekin, 35 bat gazte bildu izan dira bere baitan. Osteguna, ostirala, larunbata eta igandea ditu lanegun, gazteen aisialdia betetzen lagundu nahian. Ildo horretatik, esan dezagun Uribarrikoa dela igandetan zabaltzen den Gazte Txoko bakarra. Inguruko auzoetako gazteentzat biltoki izateko aukera emateko asmoz.

12-17 urte bitarteko gazteak dira Uribarriko Gazte Txokoko jaun eta jabe. Nagore Zulaikaren gidaritzapean, makina bat ekintza asmatzen dituzte elkarrekin egin eta gozatzeko.

HARREMANAK UZTARTUZ

Txatxilipurdiren baitan dauden hiru Gazte Txokoek



Nagore Zulaika, Utribarriko Gazte Txokoa ari da begirale.

moduan, gazteen arteko harremanak sendotzea, gazteen autoantolaketa lantzea eta euskara bultzatzea ditu ardatz Uribarriko Gazte Txokoak. Baita beste bi Gazte-Txokoekin harremanak sendo zaintzea ere.

Berezoak ditu ping-pong jokoak, futbolina, malabarrak eta hainbat mahai joko. Tarteka, bideo emanaldiak eta lantegiak (larrugintza, sukaldaritza, malabarrak, bustingintza...) antolatzen dira. Horrez gain, data

bereziak direnean ekintza bereziak ere egiten dituzte: Gabonetan, Aste Santuan eta uztailan, esaterako.

Auzora eta herrira begira lan egiten saiatzen dira Uribarriko gazteak. Kanpoko ekintzetan parte hartzen ere ahalegintzen dira, bereziki auzokideekin ahalik eta harreman sendoa izateko.

Lehengo erretiratuen egoitzako bi gela erabiltzen dituzte gazteek euren ekintzetarako. Dezente handiak diren arren, argi ikusten da

konponketa bat edo beste egin beharra dagoela.

AURRERA BEGIRA

Etorkizunerako makinatxo bat lan daukate buruan. Urrutiegi joan barik, martxoaren 10erako txokolatada antolatu da Uribarriko Gazte Txokoa. Emakumearen eguna dela eta, han ibiltzen diren gazteen amei dago zuzenduta. Arratsaldeko 16:30etan izango da.

Bestalde, eguneroko gaiekin kezkatuta, SOS Arrazakeria taldearekin batera arrazakeriaren aurkako astea antolatzeko asmotan dabilta.

Ikastaroen atalean, bestalde, graffitiak lantzeko interesa dute eta baita espelelologia gertutik ezagutzeko irteraren bat antolatzeko ideia ere.

Ikusten denez, Uribarrikoek ez dute geldirik egoteko asmorik. Gauzak antolatzen ikasteko eta ekintzaile izateko helburua zainduz, elkarrekin ondo pasatzeko ahaleginean.

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

 **MARKO-JARTZEAK**
ALDEDI


Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

M
ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

BAKAILO ETXEA



- Bakailaoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailaoan espezializatua
- Bakailao kazoletak prestatzen dira (bakailao gatzgabetua daukagu)

Mondragónés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 943 79 93 07

 **EGUZKI GRAF**
inprimategia



Industrialdia E-04
Finca: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

JESUS M. EGIDAZU eta CRISANTO MARGUSINO (INAUTERIEK)

“Gazteak anima daitee

Duela hiru urte hasi ziren inauterietako sardina egiten. Lehenengo aldiz duela hamabost urte egin zen sardina; Uribesalgo enpresan lan egin zuen hainbat pertsonak jarduten zuen “sardinagintzan” sasoi hartan. San Andresen egiten zuten sardina, Araba Etorbidean zeuden garaje batzuetan. Gerora Santos Zeziagak, Sebastian Aixelaleibak eta Bixente Herizek hartu zuten ardura hori.

— Zuek zela hasi zineten?

— Gure aurretik egiten zutenak aspertu egin ziren, eta inork ez zuela egin nahi ikusita, biok heldu genion.

— Horrez gain, beste jardueraren batean ibili zarete?

— Bai. San Joanetako karrozak egin izan ditugu eta Santamasetako txerriaren txabola edo “Txarri mobila”, berriz, Margusinok egin du. Bospasei arratsaldetan jardun

du horretan. Baina badira askoz lan gehiago ematen duten eginbeharrak ere. Haurren danborrada, esate baterako. Horren atzean bi hilabete inguruko lana dago: entseguak direla, prestakuntza lanak direla, danborra jotzeko makiltxoak egin behar direla... Hori da benetako lana, eta gainera, urtero betikoek eramaten dute aurrera egin behar hori. Sardina egitearen aldean, lan izugarri handia du horrek.

— Aurten zein egunetan ekin diozue urteroko lanari?

— Hamar hamabi bat eguneko lana ematen digusar-

dinak, baina batere presarik gabe eta patxadatsu aritzen gara lanean. Arratsaldetan elkartzen gara, bi astetik behin. Ordutan kalkulatu gero, 30-35 ordu, gutxi gorabehera.

— Aurtengo sardinak izango du berrikuntzarik?

— Lehen eskeletoa burdinazkoa izaten zen. Orain, berriz, sistema osoa aldatu dugu. Lehen, gainera, burdina batzuk zituen euskarri gisa, baina asko itxusitzen zuten sardina. Orain egurrezko euskarriak jartzen dizkiogu, eta sardinaren kolorearekin margotzen ditugu. Aurtengo sardina askoz ere handiagoa da, metro bat eta

hogei zentimetro gehiago baititu luzee-



“Badaude sardinak baino askoz lan handiagoa ematen duten eginbeharrak”

ERIKO SARDINAREN GURASOAK)

“dela”

ran. Horretaz gain bi tutu ditu, bat bertikala eta bestea horizontala. Bi tutuek bat egiten dute sabelaldean. Hor-tik gasolina isuriko dugu sar-dina erretzerakoan, eta sar-dinak erraz hartuko du su. Hogeita bost metroko petar-do-soka dugu, guztira hiru-rehun bat petardo.

Dena dela, petardo soka betidanik izan du. Argiei dagokienez, begietan, ahoan eta zakatzetan eramango ditu. Zakatzetan aurten lehenengo aldiz.

— Zein material erabiltzen duzue sardina egiteko eta zenbat?

— Berrogeita hamar xafla mehe ditu, elkarki grataputa, sabelaldean. Hori da eskele-toa. Gainetik kartoizko ezka-tak ditu, 170 tira inguru. Car-tonajes Esmak eman digu kartoi guztia. Ezkatak egite-ko plantilla bat erabiltzen dugu. Burua berriz, eskaio-lazkoa da, eta hogeiki kilo ingu-ru pisatzen du, sardina oso-ak baino gehiago. Haginak plastikozkoak ditu, eta hamai-ka bonbila ere baditu: bi begietan, bat ahoan eta gai-nerakoak zakatzetan.

Bonbilak pizteko hamar pila handi erabiltzen ditugu. Barrualdea, berriz, dena egun-kari zaharrez beteta egongo da, gero sua arinago har dezan.

— Zer da konplikatuena?

— Burua, kable guztiak bertan daude eta. Lehen kar-toizkoa egiten genuen, baina

zimurrak irteten zitzaizkion. Plastilina aritu behar izaten genuen zimurrak ezkututzen. Buruari eusteko, berriz, txapa erabiltzen dugu. Ahoa itxi eta zabaltzeko malguki bat ere badu.

— Agudo hartzen du sua?

— Bai. Litro bat gasoli-na botatzen diogu herriko plazan, eta hodia ere badue-nez, agudo hartuko du.

— Jartzen diozue izenik sardinari?

— Orain arte ez. Baina aurtengoak Kokotx du izena.

— Kalean esaten dizute zerbait?

— Bai, batzuek beti esa-ten dizute zerbait. Dena dela, jende gehienak ez daki sar-dina egin ala erosi egiten den.

— Zer sentitzen da horrenbeste orduko lana instant batean erretzen ikus-tean?

— Hurrengo urterako beste bat egin behar dela. Besterik ez. Hori bai, jende-ari esan nahi diogu karnabal egunean har dezala parte. Lehen negartiak irteten ziren lutoz jantzita sardinaren atze-an, eta zortzi bat urtean negar-tirik irten ez den arren, iaz Zaldibar inguruan itxaron zigun jendeak hamaika eta erdiak inguruan.

— Noiz arte segituko duzue “sardinagintzan”?

— Ez dakigu. Baina gaz-teei esan nahi diegu anima daitezela. ■

EMAKUMEON TXOKOA

Martxoak 8 eguaztena

- 9:00-12:00 Azoka animazioa. Azoka plazan
- 11:00 Arrasate Irratia: “Emakumeak alor publikoan”
- 16:00 Ipuin kontakizuna helduentzat: JM Carrere. F.G.H. Zentroan. Sta. Teresa 12
- 16:30-18:30 Umeentzako tailerrak. Herriko Plazan
- 17:30 Erakusketa zabaltzea. Harresi aretoan
- 18:00 Ipuin kontakizuna helduentzat: Txatxikontalariak. AEDko lokaletan
- 19:30 Manifestazioa. Seber Altube

Martxoak 9 eguena

- 10:00 Ipuin kontaketa: JM Carrere. Institutuan
- 14:30 Ipuin kontaketa: Hiruki. Erguin Herri Eskolan
- 21:30 Zine kluba. “High art” Lisa Cholodenco. Amaia Antzokian

Martxoak 10 barikua

- 11:30 Ipuin kontaketa: Hiruki. Musakola Herri Eskolan.
- 16:30 Gazte Txoko eta Ludoteketan: txokolatada
- Non Gazte Txokoetan: San Andres, Musakola, Erguinen. Ludoteketan: Seber Altube, Santamañan

Martxoak 11 zapatua

- 10:00 Emakume baserritar eta artisauen azoka Seber Altuben
- 14:30 Bazkaria. Musakolako Hostalean



hartu hitza etabakia

Emakumeen Kontseilua



Martxoaren 11n, zapatuan, emakume baserritar eta artisauen azokaren ondoren izango den herri bazkarian parte hartzea nahi izanez gero deitu 943 79 09 00 telefonora.

Martxoak 4, zapatua

Gaueko 23:00ean

Haratuzteetako dantzaldi galanta



Tarantella ORKESTRA

UARKAPE UDAL PILOTALEKUAN

SARRERA: 800 PTA (Edaria barne)

Zatoz ondo
nasatzera!!!!



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila ■

SUDC



Jende mordoak elkartu zen Al-Andalusen, Andaluziako eguna ospatzera, eta ez zen falta izan primeran pasatzeko moduko aukerarik: bazkaria, sevillana jaia, ohorezko ardoa... aspertzeko astirik gabe ibili ziren.

SUSTRAIAK GOGORATZEN



LARUNBATEAN ERE ESKOLARA!



Erguin Herri Eskolako hainbat gela beteta egon dira azken larunbat hauetan. Baina ikastera baino, jolastera joan dira umeak. Izan ere, ikastetxe horretan izan da asteburuotan Txatxilipurdiren Ludoteka Ibiltaria. Bakarka zein taldeka, hantxe ibili dira ume mordoak jolas eta jolas.



ATB-RI BURUZKO ERREPORTAJEA

ATB protagonista dugu azken aldi honetan. Joan den astean, Donostiako Altza auzoko bideo tailerrekoak etorri ziren. Herri komunikabideak ikertzen ari

dira eta ATBri tokatu zitzaion txanda. Hemen izan genituen, galderak egiten eta gure lan egun bat grabatzen Oihane Agirre teknikariarekin.



Lurrari bere onena aterara

Lurraren emankortasuna, animalien bizi baldintzak eta ekosistemaren oreka errespetatzea. Horixe du helburu nekazaritza ekologikoak.

Eta horrexegatik hautatu zuten Kristina Iñarrak, Jose Lonbidek eta Tomas Larrañagak ekoizteko modu hori. Ongarri kimikorik erabili barik, pro-

duktu osasungarri eta onak hazi daitezkeela erakutsi dute hirurek aspaldiko urteotan.

Ekonekazaritza dute ogibide hirurek.

Biolur elkartean biltzen dira nekazaritza ekologikoan dabil-tzanetakoz batzuk. Saltzeko edo besterik barik, etxerako ongarri kimiko barik ekoizten duten nekazari eta abeltzainak batzen ditu elkarte horrek Gipuzkoan. Izan ere, elkarte Federazio batean biltzen da Autonomia Erkidegoan, Ekonekazaritza Federazioan, hain zuzen ere.

Tomas Larrañaga antzuolarra, Jose Lonbide atxabaltarra eta Kristina Iñarra, gatzagarra, Biolurreko bazkide dira. Hirurek argi daukate nekazaritza ekologikoa garbi jatea baino gehiago dela. Patxi Montero Ekonekazaritzako idazkaria da eta berak dioenez, "nekazaritza ekologikoa filosofía bat da. Izadiarekiko errespetua zaintzean datza guztia. Lurra pozoinduz gero, bertatik ateratzen diren produktuak ere pozoindurik daude eta horrek dakartzan ondorioak larriak dira oso".

BIOLUR

Gipuzkoako Nekazaritza ekologikoaren Aldeko Elkarteak da Biolur. Berak, Ekolur eta Lurreko elkarteek (Bizkaian) eta Bionekazaritza elkarteak (Arabak) Ekonekazaritza osatzen dute, hau da, Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkarten Federazioa. Biolur 1993an eratu zen nekazaritza ekologikoa edo biologikoa sustatzeko asmoz.



Penintsulan 8.000 nekazari baino gehiago ari da nekazaritza ekologikoan.

Eta 1996an Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseilua eta Nekazaritza Ekologikoaren kontrol sistema ezarri ziren Euskadin. Euskal Autonomi Erkidegoan 24 ekoizle-saltzaile zegoen orduan; iazko abenduan, berriz, 52 ziren honelako ustiapenetan hazitako produktuak saltzen zituztenak. Baina ez dira nekazariak bakarrik. Hau da, ez dira barazkiak edo fru-

tak ekologikoki landu eta hazi daitezkeen produktu bakarrak. Haragia eta mahatsa (ardoa egiteko), barazki kontserbak, zerealak eta antzekoak, esnea eta gazta, oiloa eta arrautzak, ardoa, marmeladak, sendabellarak, gozoak eta baita ogia ere. Ogia egiten du, hain zuzen ere, Kristina Iñarrak.

OGI EKOLOGIKOA

Egunero jaten dugun jakia

izan arren, Kristinak astean birritan egiten du ogi ekologikoa. Gatzagako San Martin baserrian astelehen eta eguazten gauetan egiten du. "Niretako horixe da ogirik onena; horrekin ez dut esan nahi ohiko ogia ona ez denik, baizik eta etxerako, neuk egiten dudana moduko ogia nahi dudala. Hasiera hasieratik zaintzen dut prozesua: gari biologikoa erabiltzen dut eta hori

ahian, berau errespetatuz

hazteko lurrari ezin zaio ongarririk kimikorik bota. Modu honez, ogia egiteko era zeharo aldatzen da". Kristinak gau osoa ematen du ogia egiten. Bere ogia egiteko bestelakoa egiteko baino bost ordu gehiago behar da.

Garia Oskatik eta kopuru txikiago batean Nafarroatik ekartzen du Baserriko Ogia elkarteko okinekin batera, "ahal den neurrian merkeago ateratzeko. Zazpi okin gaude elkartean eta ogiaren kalitatearen alde lan egitea dugu helburu. Garia ohikoaren bikoitza ordaintzen dugu eta irina ere garestiagoa da. Baina ogia ez da zuria baino askoz ere garestiagoa. Pisuari begiratu gero, kiloko 100 pta garestiago ateratzen da, besterik ez".


Kristinak urteak daramatza ogia egiten. "Orain dela 18 bat urte hasi nintzen. Orduan ogi integrala egiten nuen, baina gero ekologikoa egiten hasi nintzen. Dietetika dendetan eta azoketan saltzen dut, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Bergaran, Arrasaten eta Oñatin.

Kristinak etiketa barik saltzen du ogia oraingoz, baina aurten, nekazaritza ekologi-

koaren kontrol sistemara makurtu eta egiazgiria lortzeko tramitazioa hastekotan da.

LURREKO PRODUKTUAK

Tomas Larrañaga, Antzuola-Lapatza baserrikoa, ezaguna da Arrasaten. Ostiraleko etortzen da azokara bere ortuan hazitakoak saltzera eta Santamasetako azokan ere sari ugari irabazi du. 1991n ekin zion nekazaritza ekologikoan lanean. "Jakiak izan daitezela zure sendagaia" leloa oso barneraturik dauka eta nekazaritza mota honek lan handiagoa ematen duen arren, garbi dauka horrela ekoiztu nahi duela. Neguan 35 orduko lan astea izaten duela dio, baina "udan orduak bikoiztu egiten dira. Lan gehiago izaten da garai horretan, eta nekazaritza mota horrek berez ere lan gehiago eskatzen du". 25 bat produktu lantzen ditu; piparrak, adibidez, 7 mota hazten ditu. Baina "kalabazak hazten ditugu gehien. Udan oso erraz hazten dira eta ezagutzera eman ditugu inguruotan". Barazkiez gain, Jakioneko bazkide denez, bere produktuak ontziratu ere egiten



Jose Lonbidek betidanik ekoiztu du ongarririk kimikorik barik.

ditu.

Biolur elkarteko lehendakaria izan da hiru urtez eta gaur egun Ekonekazaritza Federazioko eta Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseiluko lehendakari da.

Bere produktuak Antzuolan, Bergaran eta Arrasateko dendetan aurki daitezke eta baita azoketan ere.

UMEEKIN ELKARLANEAN

Jose Lonbide atxabaltarra da eta berak ortua, -hektarea bat lur- Ermuan duen arren, Kurtzebarri eskolako neska-mutikoekin Aretxabaletako Basabenen ere produzitzen du. "Nik betidanik izan dut ortua eta beti hazi izan ditut era honetara nire produktuak. Lan gehiago du, jakina, baina apustu hori egin dut". Orain dela zortzi urte nekazaritza biologikoko ikaslaro bat egin zuen bere teknika hobetzeko. "Lehen nekazaritzan bakarrik aritzen nintzen, baina orain asteburuetan bakarrik aritzen naiz horretan". Eibarko denda batean saltzen

ditu bere barazki eta fruituak, baina partikularren eskaera asko ere izaten ditu.

Bere lana Kurtzebarriko eskolan erakusten du astero. 6 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoei ongarririk kimikorik barik barazkiak nola hazi erakusten die azken lau urteotan. "Aurten fruitu arbolak eta sendabelarrak hazten erakutsiko diet. Haurrei txikitatik erakutsi behar diegu honelako jakien onuren berri".

Josek gereziondoak, gaztainondoak, sagarrondoak, mizpirondoak, madariondoak, pikuondoak, mahatsondoak eta okaran arbolak ere baditu. "Oraindik barazkiak baino ez ditut, baina udaberri eta uda aldera bestelakoak, fruitu mordo bat izaten dut eta oso gozoak izaten dira".

ESKAERA ESKAINTZA BAINO HANDIAGOA

Tomasek eta Josek gogoratzen dutenez, hasiera gogorra izan zen oso. "Era guztietako irainak entzun genituen eta *gezur-*



Kristina Iñarrak astean birritan egiten du ogi ekologikoa Gatzagan.

ti eta hippi ere deitu ziguten. Baina aspaldion, jaki transgeniko eta lurrerako erabiltzen diren ongari kimikoen aurkako salaketak tarteko, kontzientziarioa handitu egin da eta gero eta erosle gehiago dugu". Eskaera eskaintza baino askoz ere handiagoa da. Patxi Monterok azaldu digunez "nekazaritzaren hazkuntza behera egin duen arren, nekazaritza ekologikoak gora egin du". Tomasek aipatutako datuen arabera, 1991n Espainian 500 ekozile ekologiko baino gutxiago zeuden eta 20.000 hektarea baino gutxiago erabiltzen ziren nekazaritza mota honetan. "Orain, ordea, 8.000 nekazari baino gehiago gara eta 300.000 hektarea baino gehiago erabiltzen da modu honetan ekoizteko".

"Dena dela, oraindik oso barneraturik dute baserritarrek bestelako nekazaritza. Askoren ustez, ongari kimiko barik produktuak ez dira hazten" dio Tomasek. Jose Lonbide ere iritzi berekoa da. Berak aitortu digunez "Ermuan lurra erosi nuenetik urteak pasatu behar izan ziren produktuak tamaina onean hazteko. Lurra ere egokitu

egin behar da ongari kimiko barik produzitzera. Baserritar askok oraindik ere oso barneraturik du kimikoekin lan egitearena, baina guk orain dela 100 urte bezala jarduten dugu. Gainera, nekazaritza arrunta garestiagoa da; ongariak erosi egin behar dira eta hori ordaindu egin behar izaten da".

Produktu ekologikoek aurka izan duten beste ezaugarrietako bat itxura izan da. Ekonekazaritzak argitaratzen duen aldizkarian irakurri dugunez "erosketak askotan itxuraren arabera egiten dira eta nekazaritza industrialeko produktuek baino itxura eskasagoa izaten dute ekologikoek. Baina horrek oso azalpen erraza dauka. Nekazariak euren produktuen itxura zaintzeaz arduratzen dira eta nekazaritza ekologikoan bigarren maila batean geratzen da hori. Dena dela, hori ere aldatuz doa". Patxi Monterok dioenez "nekazaritza ekologikoa izaten ari den arrakasta ikusita, badira negozio bezala ustiatu nahi dutenak ere eta hori dela eta, produktuen itxura garrantzia hartzen hasi da; baina guk ez dugu ekozile mota hori



Tomas Larrañaga Azokan izaten da ostriralero.

babesten. Ohiko ustiaketa onorioak baloratu behar dira eta filosofia hau barneratu beharra dago, bere onurak behar bezala ulertzeko".

Nekazaritza ekologikoa beraz, ez da txantxetan hartzeko kontua. Horrek gora egiten duen bitartean, gure baserrien etorkizuna horren

beltza ez dela sinistu genezake eta bide batez, -eta hori da gure solaskideek sinisten dutena- gure lurrunen osasuna hobe izango da etorkizunean. Baita gurea ere. Errespetua lurriari eta izadi osoari.

Marijo Deogracias

OGI ZURIA

- Gari aleari ernamuina kendu (mineralak, bitaminak...) eta kaltzioa lapurtzen dio gorputzari.
- 100 gehigarri artifizialen erabilera onartua dago.
- 211-250 pta/kg.ko.
- Hazkarri kimikoz egiten da. Fermentazioa azkartzeak sabela puztu egiten du.
- Iraupena: egun bat gutxi gorabehera.

OGI EKOLOGIKOA

- Gari alearen osagai guztiak gordetzen ditu.
- Garia, gatza eta ura baino ez ditu.
- 547 pta/kg.ko.
- Ama-hazkarria erabiltzen da. Honek ogia liseritzeko prestatzen du, hau da, liseritza errazten du eta nutrizio aldetik aberastu egiten du. Gainera, fermentazioa motelagoa da.
- Iraupena: 5-7 egun bitartean.

XABIER IRAOLA

(ENBAko koordinatzailea)

Nekazaritza ekologikoa filosofia bat da. Beste nekazaritza ekimenak bezala bultzatzen dugu, baina oraindik oso txikia da. Ohiko nekazaritza egiten segitzen dute. Eskaerari erantzun egin behar zaio eta nekazaritza ekologikoak ezin dio eskaera guztiari erantzun. Baratzean bi muturrak aritzen dira; erretiratuak eta euren produkzio propioan ari direnak eta negutegietan aritzen diren hornitzaile handiak. Hemen dago produktorik handiena. Dena dela, merkatu gune bat izan daiteke urte batzuk barru.

MAITE ARISTEGI

(ENHEko idazkaria)

Nekazaritza guztiaren oinarri da. Lurra eta animaliak bizidunak dira eta zaindu egin behar dira kalitatezko produktuak izateko. Ez du ezer berririk asmatzen, galdutako jakituriak errekuperatzen ditu. Baserritarrentzat galdutakoa errekuperatzea gogorra da, horregatik lagundu egin behar diegu, formazioa eta dirulaguntzekin nekazaritza hori ordaindua izan dadin eta errekonbertsioan baserritarrak kalterik jasan ez dezan. Euskal Herriko nekazaritzaren etorkizuna da.



**Hasi
gaur
gurekin
haratuzteak**

Ostantz Ederra Kajoi
Kajoi Ostantz Ederra
Ederra Kajoi Ostantz

Ostantz Ederra Kajoi
Kajoi Ostantz Ederra
Ederra Kajoi Ostantz

zaldibarko areto futbola

HAU OTE DA GANORA?

Aurtengo Zaldibarko txapelketatik antolakuntza gogoratuko dugu gehien. Txapelketa hasi zenetik huts ugari nabaritu da antolatzailleen partetik eta asteburu honetan ere antolatzailleak izan dira protagonista. Igandean ez zen inor agertu Zaldibarrera, eta bertara azaldu ziren taldeak zer egin jakin gabe geratu ziren. Beno, hartutako erabakia ere ez zen makala izan, Udalan sekulako giroa egiten baitzuen. "Zaldibarren izerditan egotea baino hobeto" pentsatuko zuen askok. Kontua da leku gehienetan moduan, Zaldibarreko antolakuntzan ere gutxi batzuek dena ematen dutela, eta beste askok egiten dituzten hutsek antolatzailleen izena zikintzen dutela. Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiegu (bereziki guztia jartzen duten gutxi horiei) sekulako lana egiten baitute. Eta amaitzeko, gomendio bat:

Ondo, ezta?



Joan den igandean honela aurkitu genituen Zaldibarko jokarariak, Garaje Oscar eta Dribling taldekoak. Partida jokatu ordez, Udalara pintxoak jatera joatea erabaki zuten. Antolatzailleak ez ziren agertu eta igande golza zerbaitetan pasa behar, ezta?

Banaka batzuek baino, antolakuntza guztiak behar du fun-

damentua Zaldibar aurrera eratzeko. Beraz, zuen kontu neu-

rriak hartzea, horrelakorik gehiago gerta ez dadin.



RENAULT Clio



Mugitu edo zahartu egingo zara

MECA

Arrasate

Tel.: 943 71 21 67

Bergara

Tel.: 943 76 40 68

Tolosa

Tel.: 943 65 28 43



Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

Orlando Pir.18 - Giraldirilla Con. 0
 AT Lokala 4 - Komando Alpargat 4
 Kan. Harro. 3 - Xhasss Ugarte 5
 Atxanta el Ret. 3 - Betraye 10
 Diego Antonio Iritz 6 - Irati STS 3
 Etxe Mobil 2 - Ume Zikinak 8
 AC Surkos 3 - Saukelu Scream 0
 You Know 1 - Sokoakoak 0
 Kobate DKB 1 - Totem 0
 Goma 2 1 - Bar Nuevo 0
 Fraguel Gol 1 - Lontxo Taberna 0

B taldea

Serengeti 6 - Aldibi 8
 Kamasutra 1 - EPEH 0
 Makai 1 - KK Jaurilaritzari 0
 Potroak 6 - Borrock & Roll 2
 Aurrera Bolie 5 - Makanudos 0
 IKP 5 - Etxerat Tab. 9
 Timoftol SMD 7 - Branka Tab. 5
 AKTA 4 - Sas T 5
 Koka Juniors 4 - Alai Gozokiak 3
 Garaje Oscar - Dribling
 Leya - Txeyenex

| A taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-------------------|----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aide | Aurk. | Guzt. |
| Orlando | 14 | 11 | 2 | 1 | 92 | 35 | 24 |
| K. Alpargat | 14 | 10 | 3 | 1 | 68 | 49 | 23 |
| You Know | 13 | 11 | 0 | 2 | 70 | 36 | 22 |
| Ume zikinak | 14 | 8 | 3 | 3 | 82 | 45 | 19 |
| AT Lokala | 14 | 9 | 1 | 4 | 64 | 42 | 19 |
| Irati STS | 5 | 14 | 9 | 5 | 84 | 57 | 18 |
| Kobate DKB | 14 | 9 | 0 | 5 | 71 | 45 | 18 |
| Sau. Scream | 14 | 8 | 2 | 4 | 54 | 39 | 18 |
| Kanpazar Harrobia | 14 | 8 | 2 | 4 | 53 | 39 | 18 |
| AC Surkos | 14 | 8 | 1 | 5 | 67 | 44 | 17 |
| DA Iristu | 14 | 7 | 3 | 4 | 59 | 66 | 17 |
| Fraguel Gol | 14 | 8 | 0 | 6 | 62 | 60 | 16 |
| Goma 2 | 14 | 8 | 0 | 6 | 56 | 48 | 16 |
| Betraye | 14 | 8 | 0 | 6 | 50 | 44 | 16 |
| Xhasss Ugarte | 13 | 7 | 1 | 5 | 74 | 57 | 15 |
| Giraldirilla Con. | 14 | 3 | 0 | 11 | 44 | 133 | 6 |
| Totem | 14 | 3 | 0 | 11 | 18 | 35 | 6 |
| Etxe Mobil | 14 | 2 | 1 | 11 | 43 | 54 | 5 |
| Sokoakoak | 14 | 2 | 1 | 11 | 23 | 47 | 5 |
| Atxanta el Ret. | 14 | 1 | 2 | 11 | 27 | 105 | 4 |
| Bar Nuevo | 14 | 1 | 0 | 13 | 21 | 88 | 2 |
| Lontxo Tab. | 14 | 0 | 0 | 14 | 0 | 14 | 0 |

| B taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-------------------|----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aide | Aurk. | Guzt. |
| Timoftol SMD | 14 | 11 | 2 | 1 | 93 | 38 | 24 |
| Dribling | 13 | 12 | 0 | 1 | 63 | 19 | 24 |
| Kamasutra | 14 | 10 | 1 | 3 | 57 | 32 | 21 |
| IKP | 14 | 9 | 1 | 4 | 71 | 51 | 19 |
| Branka Taberna | 13 | 8 | 2 | 3 | 88 | 57 | 18 |
| Etxerat Tab. | 14 | 7 | 4 | 3 | 68 | 49 | 18 |
| Aldibi | 14 | 8 | 1 | 5 | 56 | 56 | 17 |
| KJ Basati | 14 | 8 | 0 | 6 | 71 | 65 | 16 |
| Txeyenex | 13 | 7 | 1 | 5 | 55 | 61 | 15 |
| Serengeti | 14 | 6 | 2 | 6 | 44 | 50 | 14 |
| Potroak | 14 | 5 | 3 | 6 | 49 | 49 | 13 |
| Garaje Oscar | 13 | 4 | 4 | 5 | 56 | 47 | 12 |
| Borrock & Roll | 14 | 5 | 2 | 7 | 54 | 67 | 12 |
| Aurrera Bolie | 14 | 5 | 2 | 7 | 39 | 52 | 12 |
| Makanudos | 14 | 5 | 1 | 8 | 41 | 81 | 11 |
| AKTA | 14 | 5 | 1 | 8 | 40 | 40 | 11 |
| Leya | 13 | 4 | 2 | 7 | 40 | 46 | 10 |
| EPEH | 14 | 4 | 1 | 9 | 43 | 50 | 9 |
| Alai Gozokiak | 14 | 3 | 2 | 9 | 42 | 64 | 8 |
| KK Jaurilaritzari | 14 | 4 | 0 | 10 | 29 | 28 | 8 |
| Makai | 14 | 2 | 1 | 11 | 54 | 110 | 5 |
| Sas T | 14 | 2 | 1 | 11 | 39 | 80 | 5 |

ARRASATE KIROLAK
 Kontzino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak / 15. jardunaldia

Iarunbata, 4

Zaldibar

09:50 Aldibi - Txeyenex (AC Surkos)
 11:00 Ume Zikinak - AC Surkos (Txeyenex)
 12:00 Koka Juniors - SAS T (Ume Zikinak)
 13:00 Betraye - DA Iristu (Koka Juniors)
 14:00 Xhasss Ugarte - Atxanta el Ret. (Betraye)
 15:00 IKP - Makanudos (Xhasss Ugarte)
 16:00 Etxerat Tab. - Timoftol (Makanudos)
 17:00 Borrock & Roll - Garaje Oscar (Etxerat Tab.)
 18:00 Goma 2 - Kobate Har. DKB (Garaje Oscar)
 19:00 Irati STS - Etxe Mobil (Goma 2)

Epailea

Iturripe A

15:50 Alai Gozokiak - Leya (Kamasutra)
 17:00 Dribling - Aurrera Bolie (Leya)

Epailea

Iturripe B

15:50 Giraldirilla Con. - AT Lokala (Dribling)
 17:00 Dribling - Aurrera Bolie (Giraldirilla Con.)

Epailea

igandea, 5

Zaldibar

11:50 You Knoe - Fraguel Gol (Branka Tab.)
 13:00 Branka Tab. - AKTA (You Know)

Epailea

Atsedena: Orlando Piratas, Kanpazar Harrobia, Komando Alpargat, Saukelu Scream, Serengeti, Potroak.

ERRUGBIA Ikusgarri




Partida ikusgarria izan zen larunbatean Garagartza-ko errugbi zelaian.

Giroa ezinhobea izan zen. Jende ugari hurbildu zen animatzera. Aurkaria Bilbo izan zen. Golpe ugari ikusi zen partidan zehar, baina Bilboko taldeak Arrasatekoari bere jokoa egiten utzi zion eta arrasatearrek ez zuten barkatu. Lehen zatiko 20. minutuan Potatok bi zutabeen artean asmatu zuen zigor kolpea. Bost minutu beranduago, Arrasateren lehen entsegua lortu zuen Josebak. Bigarren zatian Bilbok ez zuen gauza handirik egin. Arrieta mondragoetarrak egin zuen lehen entsegua, eta 15. minutuan Markelen entsegua etorri zen. Potatok lortu zuen aurkariaren defentsa gurutzatzea eta Potatok itxi zuen markagailua 37. minutuko entse-

guarekin. Partida polita eta azken emaitza Arrasatek 37 Bilbok 10. Aste honetan Eibarraren aurka jokatuko dute.

SASKIBALOA Lehenengoan kale



Bigarren aldeko lehenengo partida jokatu zuen Kenci Arrasatekoan den asteburuan.

Galdutako egin zuen aspaldiko partez. Partida lapurtu egin zieten diote Lander Errastiren taldekoek. Epaileak gaizki aritu zirela eurenkin.

Partidaren hasieran 20 puntuko alde lortu zuten arrasatearrek eta atsedendira 33 eta 51 iritsi ziren. Ordurako 17 falta pertsonal adierazi zizkieten. Bigarren zatian Arrasateko 5 jokalarik kanporatu zituzten. 18 puntuko alde galdutako zuten, baina luzapena jokatzeko beha-

rezko puntuak lortu zituzten. Alferrik, ordea. Azken 5 minutuetan arrasatearrek faltaz josi eta emaitza eskura jarri zieten etxekoek; azken emaitza, 77-76. Bihar Calahorraren aurka jokatuko dute 18:00etan Iturripen.

FUTBOLA Alferrik galdu




Irabazteko moduko partida zen Mondrako neskek igandean jokatu zutena.

Kopako partida izanik, orain arte ez galdu izana eta saikapeneko azkenengo tokian dagoen taldearen, Urkiren aurka jokatu beharra zuten euren alde Esti Loitiren neskek. Baina ez zuten aukera bat bera ere aprobetxatu. Tituren hamakakoa partida irabazita zelairatu zen. Futbol gutxi erakutsi zuten, baina lehenengo zatian Oihanak gola sartu zuen. Bigarren zatian Urkik berdin-

du egin zuen eta hortxe amaitu zen guztia.

ESKUBALOA Lagun artean bai



Arrasate Almen eskubaloitaldeak lagun arteko partida jokatu zuten larunbatean Orioko Talai Mendiren aurka.

Oraintsu eratu da Orioko taldea eta hori dela eta, ez da ligan ari. Gauzak horrela, atsedena duten asteburuan euren aurka jokatzeko aprobetxatzen dute beste taldeek.

Arrasatearrentzat partida erraza izan zen eta garaipena lortu zuten. Lehenengo zatia 17 eta 4ko emaitzarekin bukatu zen. Bigarrenean, berriz, etxekoek 33 gol eta Oriokoek 7 baino ez zituzten sartu. Aste honetan kadeteek bakarrik jokatu dute partida.

Karatekek emaitza onak



Euskal Herriko txapelketan bikain aritu ziren Saioa Karate Eskolako karatekak. Espainiako txapelketarako baliagarria zen Azkoitinen egindako txapelketa.

Gaspe mailan, katetan, Laida Ramos bigarren izan zen nesketan eta Iban Galanek ere zilarrezko domina lortu zuen mutilen artean. Kumiteetan, berriz, 55 kiloz

azpitik Iban Galan izan zen nagusi eta Jon Gonzalez hirugarren. 60 kiloz gainerik Carlos Sanchez izan zen garaile. 65 kilo gainerik hirugarren izan zen Goizeder Caballero eta 70 kilotik gora Jabier Baena hirugarren izan zen.

Espainiako txapelketa apirileko lehenengo asteburuan jokatu da.

Gimnastak bikain

Gipuzkoako Eskolarteko Gimnasia Erritmikoko txapelketako lehenengo txanda Uarkapen jokatu zen eta taldeka San Viatorreko neskek irabazi zuten. Banaka Marta Etxebarria lehenengo izan zen. Amaia Albes 7., Maite Otxandiano 9. eta Maite Garrido, berriz, 17. Kadetetan eta taldeka San Frantzisko Xabier izan zen lehena. Banaka, Maria Etxebarriak eraman zuen puntu gehien. Miren Bragado hirugarren izan zen, Janire Bolinaga 4. eta eta Maialen Bolinaga bosgarren.

Arrasateko gimnastek puntuaketa ona lortu duten arren, bigarren aldirako gogor entrenatu beharko dute, zailtasun gehiago izango dituzte eta.

Junior txapelketa

Oscar Gavilanek zilarrezko domina lortu zuen pisu jaurtiketan. 7,260 kg. ko pisua 10,57 m. ra jaurti zuen Anoetan egindako txapelketan.

Bestalde, Elgoibarren jokatu dute alebiren txapelketan Arrasateko kirolariek ere oso emaitza onak izan zituzten:

- **4x60**
San Viator A 1.
- **Altuera jauzia**
Lander Errasti 1.
Ander Trojaola 2.
Adrian Ramirez 5.
- **Luzeera jauzia**
Lander Errasti 1.
Ander Trojaola 2.
Adrian Ramirez 3.
Iban Martin 4.
- **60 m. hesitan**
Ander Trojaola 1.
Sergio Blazkez 3.
- **Pilota jaurtiketa**
Iban Torres 2.

Zikloturistak igandean errepidera



Zikloturistak Barajuenera egindako irteera batean.

Martxoaren 5ean hasiko da aurtengo zikloturisten denboraldia. 48 km.ko ibilbidea

egingo dute, Arrasaten hasi eta Aramaio, Arrasate, Arlabango mendatea, Dorletako Ama

eta buelta Arrasatera.

Aurten 28 irteera antolatu ditu Debagoieneko Zikloturisten elkarteak. 46 txirrindulari afizionatuk osatzen dute elkar-tea eta arduradunek adierazi digutenez, dagoeneko prest dituzte baimenak. Beraz, interesatuek elkartera jo dezakezue. Dena dela, beste inork igandetan bizikletan ibiltzeko gogoia izango balu, aukera du elkar-tera joan eta izena emateko.

Igandeko irteera ohi bezala elkartearen aurreko aldean aterako da goizeko 10:00etan.

Lehen mailako buruz buruko txapelketa Arrasaten

Asegarce pilota enpresak hasiko du profesionalen denboraldia Uarkapen. Martxoaren 25ean, buruz buruko txapelketako bigarren partidarekin izango da gainera. Errasti eta Patxi Ruiz arituko dira aurrez aurre. Hori partida estelarra izango da, aurretik eskuz binakako beste partida bat jokatuko da eta, oraindik zeintzuk arituko diren zehaztu barik dagoen arren. Sarrerak Asegarce gestioatuko ditu eta gehienez, 3.000 pta kostako dira.



Patxi Ruiz eta Jokin Errasti.

ARGAZKI OFIZIALA

Martxoaren 17an etorriko dira Uarkape Udal Pilotalekura



Asegarceko pilotariak jantzi berriak ipini eta argazki ofiziala ateratzera.

AUKEA sariak 2000

Ane Lopez de Bergara, Rosi Sarraoa eta San Andres Xake Taldea. Hirurak dira aurtengo AUKEA saridunak. Ane Lopez de Bergara igerilari gazteak kirolari onenaren saria eskuratu du. Rosi Sarraoa igerilari beteranoak, kirol ibilbide onenaren saria eta San Andres Xake Taldeak kirol talde onenari ematen zaiona eskuratu du.

Horrela erabaki zuen AUKEAko zuzendaritza

batzordeak joan den astelehenean. Ane hegatsekin aritzen da igerian. Ordiziako taldean ibili behar izan zuen iazko denboraldian, Arrasateko taldea desagertu egin zelako. Euskal Herriko eta Espainiako Hegats txapelketa irabazi zuen iaz, besteak beste. Rosi Sarraoak, berriz, 1978tik 1986ra bitartean Gipuzkoako, Euskal Herriko, Espainiako eta Europako hegats txapelketak irabazi zituen, hainbat

aldiz.

San Andres Xake Taldeak denboraldi ona egin zuen iaz eta aurten ere ez da atzean gelditu. Lehenago ere konstatu dizuegu lehen mailako taldeak datorren urtean preferentean jokatuko duela eta preferentean aritu den taldeak ere denboraldi bikaina egin duela.

AUKEA sariak martxoaren 25ean banatuko dira Uarkape Udal Pilotalekuan.



Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondiasport saioan, sari mundiala etxeratzeko.

Aurreko asteko erantzuna: 86. ean sortu zen Arrasate Kirolak.

Galdera: Zein kirol markarekin sinatu du Asegarce kontratua hurrengo urteetarako?

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea: Tel.:

ibilaldi neurtua prest



Martxoaren 12an egingo da Eskola arteko mendi lehiaketa, hau da, ibilaldi neurtua. Eibar, Oiartzun, Donostia, Legazpi eta Azkoitin egingo dira ibilaldiak eta Arrasate Kirol Proiektuko haurrak Eibarrera joango dira.

Girizia, Mendi Zaleak, Izadizaleak mendi elkarteek, Eibarko Klub Deportiboak eta Anaitasuna Mendi Bazkunak antolatu dute aurtengo ibilaldia. Noski, Gipuzkoako Mendizale Federazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin.



Unbe kirol gunean elkartuko dira eta handik abiatuko dira Altamira, Galdamiño, Azurtza, Bidekurutze, Topinburu, Unbe, San Salvador eta

Bidekurutzeko mendietara. Helmuga ere Unben izango da. Neska mutikoak gutxienez 3nako eta gehienez 5nako taldeetan abiatuko dira.

Talde guztiei kontrol txartelak banatuko zaizkie, ibilaldian zehar egongo diren kontrol ofizial guztietan erakusteko. Horrela, neurtu egingo da talde bakoitza eta erregularrena sailkatuko da.

ZABORRA JASO

Bidean zehar jarritako seinaleak errespetatzeaz gain, parte hartzaileek beste gauza

garrantzitsu bat izan beharko dute kontuan. Norberak sortutako zaborra, nork bere motxilan gorde beharko duela edo poltsetan utzi. Badakizue, mendia garbi!

DIPLOMA BANAKETA

Parte hartzaile guztiek diploma bana jasoko dute eta hamaketakoa ere antolatzaileek emango diete.

Irteera 08:00etan izango da Garibai kaletik. Informazio gehiago behar izanez gero, AKPko eskola bakoitzeko begiraleengana jo.

Asteburuko hitzorduak Martxoak 4, larunbata

AURREKIROLA

Musakola

- 10:15** SFX U/4. - Erguin A + B
S. Viator A - SFX D
- 11:00** La Merced - SFX A
Musakola - SFX U /3
- 11:45** Aramaio - SFX B
S. Viator B - SFX E
- 12:30** S. Andres - SFX C

MULTIKIROLA

NESKAK

Gazteluondo

- 09:30** SFX U - S. Viator A
- 10:15** SFX A - La Merced
- 11:45** S. Viator B - Erguin

MUTILAK

Gazteluondo

- 09:30** Aramaio - La Merced
- 10:15** SFX U - S. Viator B
- 11:00** S. Viator A - S. Viator C
Erguin SFX C
- 11:45** SFX A - SFX B

INFANTILAK

SASKIBALOA

MUTILAK Autobusa

Zubikoa

- 10:45** Txantxi2BM - Arrasate A
- M Lagundia
- 10:00** M Lagun. B - Arrasate B
- 11:00** M Lagun. A - S. Viator

NESKAK Autobusa

S. Viator

- 10:30** S. Viator - BHI Kurtz.

FUTBOLA

NESKAK Autobusa

Atxabalpe

- 10:00** La Merced - Torrebaso
- S. Viator - Aranzadi B
- 11:00** SFX A - SFX B

MUTILAK Autobusa

Musakola

- 10:30** La Merced - SFX



Aurrekiroleko Erguin B taldea.



Teniseko taldea.

A VIAXE DE LOLA A VIAXE DE LOLA A VIAXE DE LOLA

Alalá produccions

María Llanderas Anabell Gago Ursia Gago Mercedes Castro

Dirección e dramaturxia Cristina Domínguez

Emakumearen unibertsoari buruzko komedia



Martxoak 5, igandea

Arratsaldeko 7:30etan • Sarrera: 1.000 pta. • Gazte txartelarekin: 800 pta.

Amaia Antzokia

Haratuzteetako girorik ederrena



Lora
bar

**Aupa arrasatearrak!
Aupa haratuzteak!**

gurekin!!

DISCO-BAR



**Disco-Bar Gurelekuk
HARATUZTE ZORIONTSUAK
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealokua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

**ARROGOI
TABERNA**

Ondo pasa haratuzteetan!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

**PUB
HAIZEA**



arrasate

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56



ALDAPE
T a b e r n a

ESPEZIALITATEA:
menua - karta

Iturriotz, 41 • Tel.: 943 79 70 41 • ARRASATE

MIREN J. ETXEBERRIA (MARTXOAREN 8KO KARTELAREN EGILEA)

“Ordenadorea erreminta baino ez da”

26 urteko urretxuar honek irabazi du Arrasateko Udaleko Emakume sailak antolatu duen martxoaren 8ko hormirudi lehiaketa. Diseinu grafikoko ikasketak egin zituen Donostian, eta hainbat lehiaketatan finalista geratu bada ere, hau da lortu duen lehenengo saria.

— Zein teknika erabili duzu kartela egiteko?

— Lehenengo, akuarela bidez oinarria egin nuen. Gero gainetik akrilikoekin tratatu nuen, eta testua ordenadorez idatzi nuen. Gaur egun hormirudi lehiaketetan irabazle ateratzen diren kartel gehienak ordenadorez egindakoak izaten dira. Niri hori oso ongi iruditzen zait, baina ordenadorea azken emaitza lortzeko tresna baino ez da. Jendeak, ordea, zuzenean diseinatzeo erabiltzen du. Baina diseinuari eta koloreei buruzko oinarri bat edukitzea ia ezinbestekoa da. Niri gehiago gustatzen zaizkit kolore konkretuekin jokatzeko duten kartelak edo kolore biziak dituztenak, nahiz eta ordenadoreekin efektu handirik ez izan.

— Horrelako lehiaketetan parte hartzeko zein da oztopo handiena?

— Formato handian aurkeztu behar izaten dira lanak eta horrek asko mugatzen du. Gainera hormirudia zatitan inprimitu eta ondoren zatiak itsatsiz gero, ez da oso ongi geratzen.

— Zein mezu igorri nahi izan duzu?

— Leloa “Emakume! Hartu hitza eta erabakia” zen. Nire hormirudian emakume baten eskuek “Emakume” hitza nola hartzen duten agertzen da. “Gu emakumeak gara eta hemen gaude”



adierazi nahi izan dut. Hau da, emakumeek hartzen dutela ekimena.

— Denbora asko eskaini diozu kartelari?

— Ideia argi neukan buruan eta bozetoa ere eginda nuen. Asteartean hasi nintzen egiten eta arratsalde hartan bukatu beharra nuen, postaz bidaltzeko.

— Zergatik animatu zinen parte hartzera?

— Gai horri buruz sekula ez dut kartelik egin eta animatu egin nintzen. Gainera, emakumeok hurbiltasun handiagoz bizi dugu “Emakumeon eguna”.

— Prozesu horretan zer iruditu zaizu zailena?

— Horrelako lehiaketetan leloa nola adierazi erabakitzea izaten da zailena. Hots, ideia nagusia argi islatzea.

“Ideia nagusia argi islatzea izaten da zailena horrelako lehiaketetan”

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

- Eusko Jaurlaritzak nekazaritza eta arrantza arloan ikerkuntzak egiteko bekak deitu ditu. Epea: martxoak 8.
- EUSTATEk, estatistikaren alorrean heziketa eta ikerketa lanak burutzeko dirulaguntzak. Epea: apirilak 23.

■ IKASTAROAK

- Hastapen mailako argazki ikastaroa: apirilaren 1etik ekainaren 3rarte. larunbatetan 10.30etatik 1-30ak arte. Matrikula 5.000 pta /3.000 pta ikaslea eta langabeentzat.

■ LEHIAKETAK

- Mendiko argazki lehiaketa antolatu du Beasaingo argazkizale eta mendizale elkarteak. Lanak zuri-beltzean nahiz koloretan, gehienez 5 argazki aurkez daitezke. Epea: martxoak 10
- Bergarako Informazio Guneak, zerbitzua iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du teknika librean. Epea: martxoak 11.
- Zalduondoko inauteriei buruzko argazki lehiaketa. Epea: martxoak 19.
- Tuterako Udalaren eskutik, ipuin eta poesia lehiaketa, gai librean eta gaztelaniaz idatziak. Epea: martxoak 24.

■ LANA

- Donostiako Udalean suhiltzaile lan-poltsak osatzeko oposizioak. Epea: martxoak 6.
- Elorrioko Udalerako, administrari laguntzaile lan-poltsak osatzeko deialdia. Epea: martxoak 7.
- Nafarroako Foru komunitaterako ATSak/erizaintzako diplomatuak eta albatariak behar dira. Epea: otsailak 8 eta otsailak 10.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Badatoz haratuzteak!

Haratuzteetarako egitarau oparoa dugu arrasatearrok aukeran. Martxoaren 7an, arratsaldeko 17:00etan, *Tutik ere clowns* taldeko Gari, Montxo eta Jose Lontxo pailazoen emanaldia eskainiko dute Herriko plazan. Ordu berean, herriko kaleak alaitzen hasiko da *Samasiku* txaranga.

Arratsaldeko 18:00etan kale animazioa izango da Seber Altube plazan, *Auskalo* taldearen eskutik. 19:00etan, berriz, Arrasateko erraldoi eta kilikiak kalejiran irtengo dira. Dantzan egitea gustuko dutenek arratsaldeko 19:30etik 21:30ak arte izango dute gorputza mugitzeko aukera, herriko plazan dantzaldia izango baita *Eguzki* taldearekin. Ordubeteko atsedena ondoan, berriz, hasiko du bere jarduna *Eguzki* taldeak. Sardinen hiletak emango dio amaiera karnabaletako egitarauari. Gaueko 23:30etan izango da hori, eta erdialdeko kaleak zeharkatu ondoren, herriko plazan bukatuko da desfilea eta



Bestetan janzen ez ditugunak ipintzeko aukera aparta dira inauteriak.

sardina erreko da han.

ETXEAN EGINDAKO TORRADEN LEHIAKETA

Zahar Berriko Berba taldeak, berriz, torrada lehiaketa antolatu du datorren larunbaterako (martxoaren 4rako). Udaletxeko arkupeetan izango da lehiaketa, herriko plazan, eta

arratsaldeko seietarako etxean egindako sei torrada eraman beharko dira. Torraden zaporeaz gain, aurkezteko modua ere kontuan izango da irabazlea aukeratzetakoan.

SARIAK

Lehenengo sarituak Ibai-Arteko dendetan 20.000 pezetako

bonoa gastatzeko aukera izango du. Bigarrenak, berriz, Hotel Mondragonen bi laguntzako afaria irabaziko du.

Informazio gehiago AED-ko telefono honetan eskura daiteke: 943712117. Ekimen honetarako Ibai-Arte, Hotel Mondragon eta Maala okindegiaren laguntza jaso da.

Mozorro dantzaldia Uarkapen

SUDC elkarteak mozorro dantzaldia antolatu du datorren martxoaren 4rako. Uarkape pilotalekuan izango da dantzaldia, gaueko 23:00etatik aurrera. Dantzaldian *Tarantella* taldeak jarriko du musika eta norberak dantzarako gogoia baino ez du eraman beharko Uarkapera.

Dantzaldian parte hartu nahi duenak 800 pezetaren truke eskuratu ahal izango du sarrera, eta edari bat dohainik hartzeko aukera ere izango du.

Bestalde, mozorro bitxiak saritu egingo dira, eta jan-



Tarantella orkestra.

tzirik orijinal eta politena duen bikoteak ere saria izan-

go du. Mozorrotu eta denok dantzara, beraz!

Txatxilipurdiren deialdia

Uztailean Txatxilipurdiko udalekuetan begirale lan egin nahi duenak martxoaren 10a baino lehen dokumentazioa helarazi beharko du: curriculum, argazki bat, nortasun agiriaren fotokopia eta begirale tituluaren kopia (edukiz gero). 18 urte beteta eta euskaraz berba egiteko gaitasuna izatea ere beharrezkoa da. Dokumentazioa helbide honetara bidali beharko da: Txatxilipurdiko Udalekuak, Pablo Uranga 4 behe, 20.500 Arrasate. Informazio gehiago 943795446 telefonoan.

irakurle entzule

Iturria: Discopolis diskodenda eta Zabaleta liburudenda.

diskoak

AQUA

Aquarius (Universal), 2.995 pezeta



Baliteke talde danimarkar honen izenak deus ez esatea, baina Barbie Girl abestia aipatzen badi-zuegu, oso bes-telako kontua izango da. Duela bi urte mundu osoko dantzatokiak astindu zituen Aquak, disco estiloko doinu horiekin. Orduan urratzen hasi ziren arrakastaren bidean segitu nahirik, bigarren disko hau aireratu berri du laukoteak. Salmenta handiak eragin zituen estiloarekin jarraitzen du Aquak, hau da, nahiko dantza eta salto egiteko moduko musikarekin. Dagoeneko European salmenten lehen tokietan izan diren hainbat kanta eskaintzen digute, *Cartoon Heroes*, *Around the World* eta *We belong to the Sea*, eta beste zortzi abesti. Doinu alaiekin ondo pasatu nahi baduzue, disko aproposa da hau.

liburuak

LAS TORRES DE SANCHO

Nobela

Toti Martínez de Lezea (Tartalo)
456 or., 2.850 pezeta



Historia da Toti Martínez de Lezea gasteiztarraren zaletasun handiena. Erdi Aroa du gogokoena, eta Euskal Herriaren historiaren aro horri buruz hainbat behaketa egin du. Zaletasun honen fruitu dira bere bi nobelak, *La calle de la judería* arrakastatsua eta honako hau. Hemengoan, Nafarroan kokatzen da haria, errealitatea eta asmakizuna nahasten dituena. Duela ia hamar mende kokatu arren, bai pertsonajeez, bai gertakizuneez, errealismo eta giza sakontasun handia dute. Entrenimendua eta politika eta historia ikasgaia ematen digu Toti Martínez de Lezeak.

asteko filma



Segunda piel

Espainia, 1999. Drama.

Zuzendaria: Gerardo Vera.

Aktoreak: Ariadna Gil, Jordi Mollá, Javier Bardem, Cecilia Roth.

Apustu ausarta egin du Gerardo Vera zuzendariak eduki autobiografikoetatik abiatzen den istorio honetan. Itxuraz akatsik gabeko bikote baten bizitzan gizon bat agertzen da, eta senarra gizonarekin maitemintzen denean etorriko dira buruhausteak: emazteak senarra berreskuratu nahi du, eta senarrak, emaztea maite ez duen arren, ez dio kalterik egin nahi.

Azkenean, bizitzari zein norabide eman nahi dion erabaki beharko du bakoitzak. Sentsibilitate handiz kontatzen digu Verak hirukote honen istorioa, homosexualitatea morbo-rik gabe islatuz.

asteburuan zer

antzerkia

A VIAJE DE LOLA

Irribarrea eta sakontasuna



Emakumeari buruz, emakumeez egindako baina emakume nahiz gizonen zuzendutako antzezlan dugu ikusgai asteburuan. AlaláProduksioak taldeak ekartzen digu, eta *A Viaje de Lola* (Lolaren bidaia) izenburupean, hasteko zorian dagoen XXI. mendean emakumeari buruzko pare bat gogoeta egitera gonbidatzen gaituzte. Umorea eta analisia elkartzen dituen antzezlan honek irribarrea eta buruari buelta pare bat eragiteko aukera eman- go digu.

HARIA

Hainbat emakumeren lanari gorpuzke- ra emateko jaio zen Alalá talde galiziarra. Lau aktorek, Mercedes Castrok, Ursia Gagok, María Llanderasek eta Anabell Gagok, emakume izateak dakartzen hainbat ardurataz berba egitea erabaki zuten, eta Cristina Domínguez zuzendariak antzezlan bihurtu zituen ardura horiek.

Ardurak horiek beste edozein emakumek noizbait izan dituen berberak dira: estereotipoen indarra, neurrien esklabutza, sexualitatea... Modu arin eta umoretsuan, bere bizitza prozesuan emakume bakoitzak duen erantzukizuna erakusten du Alalá. Logroñoiko IV. Café Pasarena lehiaketa irabazi zuten iaz. Igandean, Amaian, 19:30ean.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Martxoak 10: L7 eta **Pussycats**
Martxoak 11: Frank T, El Imperio eta DJ Zeta

3 Egun bakoitzerako sarrera zozketatzen ditugu.
(Zozketa ostegunean ATBko Soinuz Blai saioan egingo da)

Izen-deiturak:

Kontzertua:

Bidalari gura: Arrasate Press, Otalora 31, Arrasate.

ATB

Programazioa

OSTIRALA, 3

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:35 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:45 **Ekilan,** Alberto Gorritibe-reak aurkeztuta.
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak,** Maider Osaren eskutik.
- 21:30 **Astebete** saioan, Eneko Azkaratek asteko berri garrantzitsuenak biluko ditu.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).
- 22:10 **Soinuz Blai.** Miren Gonzalezek azken musika klipak aurkeztuko dizkigu.



Miren Gonzalez.

LARUNBATA, 4

- 13:30 Asteko programen errepika: **Jolasplat, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Mahai ingurua, Ekilan, Soinuz Blai** eta **Astebete.**
- Egun horretan ikusiko dugun Mahai Inguruan, Rosa Mondragonek Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, lau emakume gonbidatuko ditu, emakumearen egoera eta berdintasunaren gainean aritzeko. Saioa asteazkenean

eskaini zuen ATBk eta, Lurdes Idoiaga, Mari Asun Iturbe, Sagra Lopez eta Karmele Iparragirre izan ziren solaskide.



Mahai inguruko solaskideak.

IGANDEA, 5

- 13:30 Asteko programen errepika: **Jolasplat, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Mahai ingurua, Ekilan, Soinuz Blai** eta **Astebete.**

ASTELEHENA, 6

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:35 **Gatza eta Berakatza.** Edurne Izarzelaiak, Dukiena jatetxeko sukaldariak endibia entsalada gertatuko digu.
- 13:45 **Astebete** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Mondrasport,** Xabier

Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Sarrerakoak

| NOIZ | PLATERA |
|--------------|--------------------|
| Astelehena 6 | Endibia entsalada. |
| Astearte 7 | Arroz entsalada. |
| Asteazkena 8 | Marisko salpikoia. |
| Osteguna 9 | Esparrago beteak. |
| Ostirala 10 | Zurrurutuna. |

- Urzelai eta Itxaro Zubillagaren eskutik.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**
- 22:15 **Haratuzteak** ATBn. Maier Uranga Aretxabaletako inauterietan egongo dela aprobetxatuz, saio berezia egingo dugu.

ASTEARTEA, 7

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:35 **Gatza eta Berakatza.** Iturritxo jatetxeko Aitor Aizpuruak arroz entsalada gertatuko digu.
- 13:45 **Mondrasport** (errepika).
- 19:20 **Jolasplat.** Mikel Lizarralde zuzendutako umeentzako saioa.
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Haratuzteak.** Aretxabaleta eta Arrasateko inauteriei buruzko saio berezia, Maier Urangaren eskutik.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEAZKENA, 8

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:35 **Gatza eta Berakatza.** Bergarako Batzokiko Jose Ignacio Lasak, marisko salpikoia gertatuko digu.

- 13:45 **Haratuzteak** (errepika).
- 20:00/20:30 **Berriak.**
- 21:00 **Mahai ingurua.** Hauteskudeak 2000 hizpide hartuta, Maria Agirrek mahai inguru berezia gidatuko du alderdi politikoetako ordezkari nagusiekin.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

OSTEGUNA, 9

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:35 **Gatza eta Berakatza.** Oñatiko Garoa jatetxeko Mari Karmen Telleriak esparrago beteak prestatuko dizkigu.
- 13:45 **Mahai ingurua** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Guganda.** Aintzane Gardokik martxoaren 12an egingo den herri galdeketeri buruzko saio berezia eskainiko du.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**
- 22:10 **Soinuz Blai.** Erritmo biziz etorriko zaigu Edu Abasolo, azken bideo musikalekin.

OSTIRALA, 10

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:35 **Gatza eta Berakatza.** Elizondoko Igor Ezpeletak zurrurutuna gertatuko digu.
- 13:45 **Gugandan** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Eneko Azkaraterekin.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**
- 22:10 **Soinuz Blai,** Edu Abasolorekin.

“Hauteskundeak 2000” mahai ingurua

ATBk hauteskunde garaian egin ohi duen bezala, aurten ere mahai ingurua antolatu du. Maria Agirre kazetaria izan-

go da saio bereziaren aurkezlea eta berarekin batera arituko dira alderdi politikoetako ordezkariak.

Joseba Egibar (EAJ), Gorka Knörr (EA), Joseba Permach (EH), Antton Karrera (Ezker Batua), Jesus Egiguren (PSE-

EE) eta Carlos Iturzaiz (PP). Saioa martxoaren 8an, asteazkenean, izango da. Ordua, gaueko 22:00ak.



Antton Carrera (EB), Joseba Permach (EH), Joseba Egibar (EAJ), Gorka Knörr (EA), Jesus Egiguren (PSE-EE), Carlos Iturzaiz (PP).

Argazkiak: Euskaldunon Egunkaria

Herri kontsulta

Guganda ostegunean, 21:30

Aintzane Gardokik aurkeztu duen Guganda saioa, berezia izango da datorren astean. Aurreko saioan kanpo zorrari buruz aritu baziren, datorren ostegunean ere, horixe izango dute hizpide. Izan ere, Debagoieneko Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) martxoaren 12an herri kontsulta egingo dute gai honen inguruan. Hori dela eta, bi gonbidatu izango ditu Aintzane-k ATBko platoon. Batetik, Arrasateko Harreman GKE-ko Beñat Arzadun kidea izango da eta bestetik, Ibon

Antero, Aretxabaletako Hiruatx taldekoa. Bien artean, martxoaren 12an Euskal Herriko hainbat herritan eta Espainiako beste zenbait hiritan egingo den herri kontsultaren zergatiak arituko dira.

Arrasateri dagokionez, zortzi mahai jarriko dira. Zazpi hautes eskoletan eta bestea herriko plazan. Aretxabaletan, berriz, bakarria jarriko da hautes eskolaren ondoan.

Begiraleak ere aukeratu dituzte, bozketa behar bezala joan dadin.



Beñat Arzadun eta Ibon Antero



Haratuzteak ATBn

Saio berezia astelehenean, 22:30



Maier Uranga, iazko inauterietan Aner Brutalekin batera.

Inauteriek ere tarte berezia izango dute aurten Arrasate-Telebistan. Oraingoan ere Maier Uranga izango da aurkezlea eta Aretxabaletako eta Arrasateko haratuzteak ekarriko ditu gurera. Astelehenean, martxoaren 6an, Aretxabaletako inauterietan buruzko saio berezia aurkeztuko du eta asteartean, berriz, Aretxabaletakoez gain, Arrasateko mozo-

roak ikusiko ditugu. Izan ere, SUDC elkarteak, dantzaldi berezia antolatu du Uarkape Udal Pilotalekuan eta ziurrenik giro aparta sortuko da han. Tarantela orkestraren musikarekin mozorrodantzaldia antolatu dute.

Mozorrorik ez baduzue, beraz, azkar ibili, gero eta denbora gutxiago dago eta.

Animatu eta parte hartu!

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Torreviejan apartamentua salgai. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 79 32 54 eta 480 61 81 07.

3. Errentan emateko

• Logela bat alokatzen da, etxebizitza konpartitu batean. Tel.: 943 79 23 96.

• San Andres auzoan emakume langile edo ikasle batentzat gela alokatzen da. Tel.: 943 79 15 96. Bittor.

• Etxebizitza alokagai Benidormen, Plaza de Levanteren aurrealdean. Tel.: 946 80 09 53. Marisa.

• Gela bat alokagai. Tel.: 677 71 90 03, Eder. 636 92 07 86. Inaki.

• Etxea alokagai Unqueran (Kantabriar) asteburu, Aste Santu eta udarako. Tel.: 942 33 57 80.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatu nahiko genduke, 3-4 lagunentzat. Tel.: 943 77 03 36.

• Ikasle talde batek etxebizitza alokatu nahiko genduke Arrasaten, 3 edo 4 pertsonentzat. Tel.: 649 88 79 22. Eneritz.

• Gela bat alokatuko nuke. Tel.: 943 19 90 62. Alazne. 21:00etatik aurrera.

5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar da langileen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Langilea bada hobe. Tel.: 943 77 03 36. Ainhoa.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Zigarrolan. Tel.: 617 72 47 83.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai, Jose Luis Iñarra pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

9. Errentan emateko

• Garajea alokatzen da Uarkape kalean. Tel.: 943 79 84 35.

• Bi garaje itxi alokatzen dira Arima zuri plazan, bietako bat bikoitza. Tel.: 656 75 91 98.

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Taberna salgai Arrasaten, guztiz jarria. Tel.: 943 77 07 80 / 608 73 86 73.

• Taberna salgai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Taberna alokagai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

LANA

17. Eskaintza

• Neska umeak zaintzeko prest, arrasaldetan. Tel.: 943 71 53 74.

• Era guztietako lanak eta apunteak ordenadorez pasatzen ditut. Aukera zabala: letra eta tamaina gustukoena, marrazkiak, grafikoak, etab. Tel.: 646 09 53 38.

• Neska asteburuetan tabernari lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 42 54.

• Esperientziadun neska prest etxeko garbiketarako orduka egiteko, umeak zaintzeko edo beste lanen bat egiteko. Tel.: 943 79 69 66. Ainhoa.

18. Eskaerak

• Oxford-en (Ingalaterra) senar-emazte espainolek neska behar dute bi seme-alaba zaintzeko. Soldata, lana luzatzeko aukera eta ingelesa ikasteko denbora eskaintzen da. Tel.: 945 25 31 12.

• Arrasaten kokatutako Informatika enpresak, informatikan diplomatu edo lizentziatua behar du, C ezagupenak. Harremanetarako: 943

71 20 99.

• Kale-baserri batean pertsona bat behar da ortuan lan egiteko. Lur zati bat utziko zaio berak landu dezan, laguntasunaren trukean. Tel.: 943 79 10 95.

• Neska euskalduna behar da arrasaldetz denda batean lan egiteko. Bidali datuak 258 posta kutxatilara.

• Zerbitzari euskalduna eta garbitasuna eramango duen pertsona behar dira jatetxe batean astebukaeretan lan egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

• Azokan lan egiteko laguntzailea behar da. Interesatuak deitu 619 21 91 72 telefonora.

• Aramaioko gastronomi elkarte baterako garbitzailea behar da. Tel.: 945 44 52 15.

• Emakume bat behar da jatetxe batean garbiketalarik lan egiteko. Tel.: 943 79 24 58.

• Pertsona bat behar da tabernari lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Neska bat behar da bi neskatilarik zaintzeko, Garagartzan. Autoa badu, hobe. Larunbat edo igandean deitu 629 20 71 81 telefonora.

• Emakumea behar da bi neskatilarik zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Pertsona euskalduna behar dugu sagardotegi batean zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 53 85. Juanjo.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Esperientzia eta EGA titulua duen lizentziatuak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

• Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

• Ingelesezko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

21. Eskaerak

• Enpresa zientzietako 2. ikasturteko matematikako eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 92 73.

• DBHko 3. kurtsoko eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943

79 66 05, goizez.

- Gorren hizkuntza edo LS dakien norbait behar dut praktikatzeko. Tel.: 607 31 02 66. Sonia.

- DBHko 3. mailako ikasleak eskola partikularrak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 96 69.

- DBH 4. mailako eskola partikularrak emateko norbait behar dut. Tel.: 943 79 12 95.

MOTORRA

23. Saldu

- Opel Astra 14i-GT. IAT Abenduan pasata. 10 CD sartzeko musika eki-poarekin. Prezio onean. Tel.: 943 79 75 02 / 606 00 30 16.

- Opel Kadetta salgai GSI 16 balbula. Ondo zaindua. Tel.: 943 79 75 11.

- Citroen BX 16 salgai. SS-AB matrikula, IAT pasatu berria. Egoera onean. Tel.: 943 79 81 19.

- Renault Master furgoneta salgai. SS-0290-BF matrikula. 11.000 km. ditu. Mendirako prestatuta. Tel.: 943 79 95 89.

- 50 cc-tako motorra salgai. Bi urte-takoa, eta ia berria. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 09 31.

DENETARIK

26. Saldu

- Teknografo (marrazki taula) pare bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 11 80.

- Bigarren eskuko Pignini markako akordeoia salgai. Tel.: 943 79 13 88. Amaia.

- Natural hazitako bildots eta txahal labeldunak izozkailuan sartzeko salgai. Tel.: 689 54 18 61.

- Whipit piragua salgai, arrauna, bainu-estalkia, eta bi puxika. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

- Marrazteko mahaia, "Lester" marka alemaniarra, salgai. Berri berria da. 15.000 pta. Tel.: 943 79 25 10.

- Cocker txakurrak salgai. Tel.: 696 05 73 46.

- Soinu txikia salgai. Berria, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

- Solarium APRO markakoa salgai, egoera onean. Tel.: 943 76 51 76. Leire.

- Emakumezkoen mendiko bizikleta, berri-berria salgai. 3 plater eta 6 pinoi. BH markakoa. Tel.: 943 79 96 37.

- Bi mostradore eta apala metalikoak salgai. Tel.: 666 95 79 83.

- Bigarren eskuko teklatura, Yamaha Portatone (PSR-200) elektronikoa, salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 93 07.

27. Erosi

- Mundu guztiko txanponak erosi, saldu edo aldatuko nituzke. Tel.: 943 79 54 55. Mikel. 20:00etatik aurrera.

- Diskoak, singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77. Jose Luis.

31. Galdu

- Zenbait bitxi zintzilik duen urrezko kataia galdu nuen urtarrikoko azken egunetan. Aurkitzen duenak ordain saria jasoko du. Tel.: 639 65

34 85.

- Otsailaren 15ean, asteartez, aterki tolesgarri berdea galdu zitzaidan, Vogue markakoa. Tel.: 943 79 84 09.

- Otxalora kaleko farola baten ondoren tenazak galdu zitzaizkidan, kirtenak gorri kolorekoak dira. Tel.: 943 46 53 56.

- Urre zuriko erraztun bitxiduna galdu zait. Balio sentimental handikoa da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez, eskertuko dugu. Tel.: 943 79 23 17.

33. Bestelakoak

- Dieta pertsonalizatua Nutrikarekin. Tel.: 619 32 62 27.

32. Aurkitu

- Urrezko katea dominarekin, lñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

- Arrasate Pasealekuko "Bolintxo" okindegiaren inguruan, montura metalikoa eta koloreko kristalak dituzten betaurrekoak aurkitu nituen orain dela aste batzuk. Tel.: 943 79 47 56.

Gida 2000

ARRASATE
ARETXABAETA
ESKORLATZA
LEINTZ BATZAGA

APRO • AFFASATE KOMUNIKABIDEAK

Adi egon!

Gida 2000 laster zure postontzian aurkituko duzu.

Autobus ordutegiak,
egutegia, aurkibide
alfabetikoa...

Ez baduzu jasotzen, deitu 943 71 23 91 telefonora edo zuzenean ARKOra etorri. Otxalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE



Erregional mailan jokatzeko Mondra taldeak, 1974. urtean eta denboraldi osoa maila berean irautea lortu zuen, gainera. Jesus Moreno mondragoetarraren gidaritzapean, inguruko herrien

aurka jokatzeko taldeak. Argazki honetan Oñati-ko Azkoagain futbol zelaian dago hamaikakoa.

Zutik daudenak, ezkerretik hasita honakoak dira: Felix Esperasate, Jose Ignacio Pombar, Iñaki Zeziaga "Divino", Luis Arrieta, Luciano Merca-

der eta Agustin Hernandez.

Makurtuta daudenak: Gregorio Palacios, Juan Luis Olalde, Jose Ramon Arkauz, Jose Ramon Orue eta Nikolas Gonzalez. Taldeak etxean jokatzeko zenean, Iturripe zaharrean aritzen zen, herritar ugariaren aurrean. Sekulako animazioa

izaten omen zuten orduan.

Berriemailearen esanetan, bestalde, orduko epaileak oraingoak baino hobekak ziren.

*Argazkia eta
berriemailea:
Gregorio Palacios.*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

subiranotasunaren aldeko urratsa

abstentzioa

espainiar hauteskundeei

Espainolak ez garelako


*Euskal Herriak
hitza eta erabakia izateko*

*Euskal Herriak
bere instituzioak
behar dituelako*

*Madrilgo inposizioari
agur egiteko*

*Gure seme-alabak
etorkizunaren
jabe izateko*

*Gure errekurtsuak eta
ekonomia geuk
antolatzeke*



"auto fidagarri, seguru, dinamiko,
berritzaile, zabal, jostagarri eta
nortasuneko bat nahi duzu.
eta aurkitu duzula uste duzunean,
focus agertzen da.

Zeren eta zu zerbañ
gehiagoren bila baitzabiltza.

"Erabiltzaile eta
kontsumitzaileen
Erakundeak (OCU),
"crash test" delakoaren bitartez
egindako ikerketaren arabera,
Ford Focus-ek puntuaziorik altuena
lortu du segurtasunean,
beste 5 modelorekin batera"

AUTOPISTA aldizkariko
2.064. zenbakian argitaratua

Ford Focus ****
Mercedes Clase A ****
Opel Astra ****
Renault Mégane ****
Audi A3 ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***
Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
Suzuki baleno **

fordfocus TDDi berria



MUGARRI



DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54